


# UDA-GAU BATEKO AMETSA

William Shakespeare

Itzulpena: Juan Garzia Garmendia





# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eu](http://booktegi.eu)

**EIZIE**

**euskal itzultzaile, zuzentzaile eta  
interpreteen elkartea**

[eizie.eus](http://eizie.eus)

Jatorrizko obraren izenburua: *A Midsummer Night's Dream*

© Juan Garzia Garmendia

© EIZIE (argitalpen honena)

© Azala: Maitane Gartziandia Agirrezabala

Argitalpen hau DSS2016EU erakundearen eta EIZIE elkartearen arteko lankidetzaz egin da, Shakespeareren *Ametsa* biziarazten programaren baitan.



WILLIAM SHAKESPEARE

# Uda-gau bateko ametsa

Juan Garzia Garmendiaren itzulpena

## Aurkezpena

William Shakespeareren *A Midsummer Night's Dream* komedia ardatz harturik, EIZIEk eta DSS2016EU erakundeak zenbait ekimen antolatu zituzten lankidetzan 2014an, «Shakespeareren ametsa biziartzten»<sup>1</sup> programaren baitan. Juan Garziaren Uda-gau bateko ametsa itzulpenaren argitalpen digitalak eman zion buru programari, 2014ko abenduaren 3an.

### Beste bi *Amets* aitzindari

Esku artean duzun hau ez da Shakespeareren obra horren itzulpen bakarra. Aurrez, beste bi itzultzailek emana zuten euskaraz, Bingen Ametzagak eta Bedita Larrakoetxeak, joan den mendearen erdialdean. «Shakespeareren hiru Amets»<sup>2</sup> izeneko ekitaldian izan genuen aukera Ametzagaren eta Larrakoetxearen itzulpenen berri izateko.

Bingen Ametzagak Shakespeareren lau antzerki-lan euskaratu zituen Amerikako erbestean, 40ko eta 50eko hamarkadetan: Uda gau bateko ametsaz gainera, Macbeth, Hamlet eta Julius Caesar. Horein artetik, Hamlet baizik ez zegoen argitaratuta. 2015ean, ordea, Uda gau bateko ametsak ikusi zuen argia lehenengoz, EIZIEn Itzultzaile Aitzindariak bilduman<sup>3</sup>.

---

<sup>1</sup> [http://www.eizie.eus/uda\\_ametsa](http://www.eizie.eus/uda_ametsa)

<sup>2</sup> [http://www.eizie.eus/uda\\_ametsa/UGBAeus](http://www.eizie.eus/uda_ametsa/UGBAeus)

<sup>3</sup> <http://www.eizie.eus/Argitalpenak/aitzindariak/ametzaga>

Bedita Larrakoetxeak, berriz, Shakespeareren antzerki-lan guztiak itzuli zituen, oso urte gutxian eta presaka itzuli ere. Euskara salbatzeko helburuz egin zuen hori, garai hartan lan unibertsalak euskarara ekartzea jotzen baitzen horretarako bide nagusizat. Berak onartzen zuen askoz ere hobeto egin zitekeela, baina lehenbailehen argitaratzeari eman zion garrantzia.

Aitzindari haiek ikaragarritzko lana egin zuten, ez baitzuten oraingo baliabiderik. Ez da erraza gaurko egunetik imajinatzea zein zaila izan zitekeen hori garai hartan, euskara estandarrik ez zegoenean, Internetik ez zegoenean, ez gaur egun ditugun hiztegi digitalak, ezta idazle zaharren obrak ere hain eskura... Itzultzaile haiena bai izan zela benetan bakarlana. Teknologiaz gainera, giro politikoak bakartuta, elkarrekin ia harremanik izateko aukerarik gabe jardun zuten, bakoitzak ahal zuen erara.

### **Hirugarren Ametsa**

Ametzagak eta Larrakoetxeak prosaz eman zituzten beren bertsoak, nahiz eta Shakespearek hitz neurtuetan idatzi komediaren parte asko eta asko, eta hitz neurtuetako gehienetan errima erabiliz gainera. Hain zuzen ere, esan daiteke obra hau dela, proportzioz, Shakespeareren lanen artean, bertso-lerro gehien duena. Eta desafio horri heldu nahi izan dio Juan Garziak bere itzulpenean: jatorrizkoan hitz neurtuetan dauden pasarteak hitz neurtuetan eman ditu berak, eta errima erabili du, gainera, autoreak errima erabili duen kasuetan ere. Horretarako, jakina, euskal tradizioko neurri eta moduez baliatu da, eta ingeleseko 10-11 silabako bertso-lerroen orde 15 silabakoak edota 18koak erabili ditu. Lehen neurria, Etxeparek berak gehien erabili zuen bertso-kera da, 8/7 ataletan banatua, eta harrezkero beste idazle batzuek eta hainbat herri-kantak ere erabili dutena; bigarrena, berriz, 10/8 silabatan banatua, zortziko nagusiarena.

Juan Garziak ez du izan aitzindariak adina arazo euskara-eredua hautatzean. Oinarrizko estandarra, euskara batua alegia, eginga baitago. Horrez gainera, irakurtzeko testu bat egin du. Bertso-lerroez gainera, prosazko zatiak ere estilo deklamatorioan itzuli ditu, ez prosa arruntean. Eta bertsoan eta errima erabiliz egiteari dagokionez, Garziak berak esandakoaren arabera, bertsoan idazteak ematen ditu erraztasunak ere, paradoxikoa dirudien arren: hiperbatonak-eta naturalago erabil daitezke, eta, bestalde, erritmoak berak eraman egiten zaitu hein batean, eta erraztu egiten du entzutea. Bestalde, leialtasunari dagokionez, errazago barkatzen da kontakizunaren xehetasunetan hain leial ez izatea, garbi ikusten delako errima eta metrika mantentzeko egiten dela. Bera, hala ere, jatorrizkoan esaten direnak ahalik eta leialen ematen saiatu da.

Antzerki-lan honek, nahiz eta orain 400 urte idatzia izan, ametitzen du gaur egungo irakurketarik, Larraitx Ariznabarreta filologia eta shakespeareazaleak programaren lehen saioan, «Itzultzailearen Sukaldea I»<sup>4</sup> ekitaldian aipatu zuenez. Obrak kanon berrietatik begiratu eta berrinterpretatzeko aukera ematen du nabarmen, eta gaur egungo teoria postmodernoetatik aztertzeko ere aberatsa da. Gizarte patriarkalaren kritikarako elementuak ditu, irakurketa ezin gaurkoagoak egin daitezke genero-ikuspegitik.

---

<sup>4</sup> [http://www.eizie.eus/uda\\_ametsa/sukaldea1](http://www.eizie.eus/uda_ametsa/sukaldea1)



**Uda-gau bateko ametsa**



*Sartu TESEO, HIPOLITA, FILOSTRATO eta haien segiziokoak.*

### **TESEO**

Horra, Hipolita eder, gure eztei-ordua  
nola ari den hurbiltzen. Lau egun gozo barru  
beste ilargi bat dugu. Ai, baina, zein geldiro  
murrizten zaigun zaharra, gerokotuz desirak,  
nola amaorde edo alargun jabetuak,  
gazte baten ondarea higatuz ezarian.

### **HIPOLITA**

Lau egun agudo dira gauean murgilduko,  
agudo lau gauk denbora ametsez pasarazi,  
eta goitik ilargia, zilar-arku bat nola  
ortzian tenkatu berri, egongo da guri so  
ezkon-jaien gau horretan.

### **TESEO**

Zoaz hor, Filostrato:  
atenastar gazteria akuilatu festara;  
piztu bozkarioaren izpiritu bipila;  
igorri malenkonia hilen ehorzketara,  
ezen lagun zurbil hori giroz kanpo da jaian.

*Irten FILOSTRATO.*

—Hipolita, gorteatu zaitut neure ezpataz,  
eta zure maitasuna lortu zu zauriturik.  
Ezkontzea, baina, beste trenpu batez nahi dut:  
ospakizun hotsandikoz eta jai-bozkarioz.

*Sartu EGEO, HERMIA, LISANDRO eta DEMETRIO.*

### **EGEO**

Zoriontsu biz Teseo, gure duke bikaina!

## TESEO

Eskerrik asko, Egeo. Zer berrirekin zatoz?

## EGEO

Arrenkuraz eta kexuz beterik natorkizu,  
neure haur, neure alaba Hermia salatzer.

—Zatoz hona, Demetrio. —Ene jaun noble hori,  
gizon hau dut baimendua harekin ezkontzeko.

—Zatoz zu orain, Lisandro. —Bada, ene jaun ona,  
gizon honek dit sorgindu alabaren bihotza.

—Zuk diozu, bai, Lisandro, eskaini mila neurtitz,  
eta harekin trukatu hainbat maite-opari.

Leihopetik diozu zuk ilargitan kantatu  
ahots faltsuz bertso berri maitasun faltsuzkorik,  
haren irudimenaren sentipena zeuretu  
zeure ilezko besokoz, eraztun, apaingarriz,  
kutixiz, pitxiz, buketez, goxokiz, hala baita  
noski erraz menderatzen gazte zaildu gabea.

Maltzurkeriaz duzu zuk liluratu gaixoa,  
eta hark niri zor didan esanekotasuna  
seta gaitz bihurrarazi. —Bada, ene jaun ona,  
bego horretan harena: baldin ez badu hemen  
zure aurrean onartzen senartzat Demetrio,  
Atenasko antzinako legea dut eskatzen;  
enea denez alaba, eskupean dut hura:  
edo jaun zaldun honentzat izango da, edota  
bertan hil bedi herioz, legearekin ados  
horixe baitagokio honelako auzian.

## TESEO

Zer diozu zuk, Hermia? Kontu egizu, neska:  
jo ezazu zeure aita jainko baten gisako;  
gutziz ederrik hark zaitu zaren bezala sortu  
argizariz egindako bere moldea nola,  
hark irarri eta haren nahimenaren pean,  
irudi hori gorde zein bertan desegiteko.  
Demetrio guztiz duzu jaun zaldun egokia.

## HERMIA

Lisandro ere hala da.

## TESEO

Izatez, hala da, bai,  
baina oraingo kasuan, aitaren bozka gabe,  
bestea hartu behar da bietan egokien.

## HERMIA

Ai balu begiratuko aitag ene begioz.

## TESEO

Hobe zureok balira harenez zentzatuko.

## HERMIA

Arrenka dizut eskatzen, jauna, barka nazazun.  
Ez dakit zerk ote didan ausardia hau eman,  
ez eta zer kalte duen ene begiruneak  
kexuka zuri honela barrena agerturik,  
baina erregutzen dizut garbiro esateko  
okerren zer dagokidan niri auzi honetan,  
ez baldin badut senartzat Demetrio onartzen.

## TESEO

Edo hiltzea herioz, edo bertan uztea  
sekula eta betiko gizarte-bizitzari.  
Hargatik, Hermia eder, egin desiroi muzin;  
ohartu zein gazte zaren, aztertu sentipenok,  
ea —aitaren hautua hartu gaberik aintzat—  
prest zauden eramateko mojaren abitua,  
betiko giltzapeturik klaustro goibel batean,  
ahizpatasun antzuan bizialdi guztiko,  
himno-kantari ilargi hotz fruitugabeari.  
Hirutan doatsu dira sentipenak garaituz  
gai direnak jasateko birjinbide latz hori;  
munduan, baina, arrosa lurrin-irazia da  
adu hobekoa ezen ez ukigabe dena  
hazi, bizi eta hiltzen dohatasun soilean.

## HERMIA

Hala haziko, biziko eta hilko naiz ni, ene jauna,  
birjintasuna inola ere opa baino lehenago  
jaun goren horri. Gogoz besteko uztarri behartuari  
ene arimak ez dio nahi jabetasunik aitortu.

## TESEO

Hartu denbora eta hausnartu; hurrengo ilberrirako  
—maitearekin bion arteko kidetasun eternala  
lotura-bermez zigilatzeke eguna baitugu hura—...  
Egun hartara heltzean, edo herioz hiltzeko zaitez,  
zeure aitaren desirei kontra egiteagatik presta,  
edo senartzat haren hautura Demetrio onartzeko;  
edo betiko zin egiteko Dianaren aldarean  
bizimodu bat urri-latz eta bakardade zurrekoa.

## DEMETRIO

Amore eman, Hermia ezti. —Eta, Lisandro, makurtu  
zentzu galduko eskari hori ene zuzen ziurrera.

## LISANDRO

Zeurea duzu zuk, Demetrio, aitak dizun maitasuna;  
uztazu niri Hermiarena: ezkon zaitez aitarekin.

## EGEO

Hara Lisandro burlaz txantxati! Ene maitasuna du, bai,  
eta enea den hori dio ene maitasunak opa.  
Eta, enea denez Hermia, hartaz dudan zuzen oro  
gutzizko gogo betean dut nik Demetriogan ezartzen.

## LISANDRO

Jauna, ni nauzu hura bezain duin etorkiaren aldetik;  
jabegoz ere paretsu biok. Gainditzen dut maitasunez;  
ondarez, berriz, molde orotan hain maila onean nago,  
non ausaz baitut nik abantaila Demetrioren aldean.  
Eta —hau baitut gehiagotzat nik gala guztiok baino—  
neure alde dut Hermia guztiz ederraren maitasuna:  
zergatik ez dut, bada, egingo neure zuzenaren eske?  
Demetrio zen —ekar dezadan gaur hori haren burura—  
maitelanetan hasi Nedarren alaba Helenarekin,  
eta gogatu; geroztik dama ezti horrek zintzo baitu  
maitasun sutsuz, idolatriaz maite-gurtzen bihotz osoz  
gizon nabarmen eta erabat gogo-aldabera hauxe.

## TESEO

Aitor dezadan entzun nuela zerbait zuk diozunetik,  
eta pentsatu hitz egitea Demetriorekin hartaz;  
alta, gainezka egonik neuri dagozkidan egitekoz,  
oroimenetik joan zitzaidan. —Baina zatoz, Demetrio.  
—Eta, Egeo, zatoz zu ere; erdu, zatozte enekin:  
apartean dut nik emateko ikaskizun bat biontzat.  
Zuk, berriz, kasu, Hermia eder, presta zaitez berehala  
zeure apetak egokitzen aitaren desiretara;  
ezen, bestela, atenastarron legeak zaitu behartzen  
—ezin baitugu lege astuna inola ere arindu—  
heriotzara, edo hartzera zinpeko bakar-bizitza.  
—Zatoz ondora, oi Hipolita; ongi al zaude, laztana?  
—Enekin erdu, ea, Egeo eta Demetrio, otoi:  
badut zuentzat eginkizun bat gure eztei-jaietako,  
eta nahi dut hitz-aspertu bat egin zuekin biokin  
oso gertutik hartzen zaituzten zerbait delarik hizpide.

## EGEO

Eginbidean guztiz gogotsu zure ondotik goaz gu.

*Irten guztiak LISANDRO eta HERMIA izan ezik.*

## LISANDRO

Zer duzu, laztan? Zergatik dago zure musua hain zurbil?  
Nolatan dira horko arrosak hain ere bizkor zimeldu?

## HERMIA

Euri eskasez, inondik ere, bai bainezake halakoz  
neure begien ekaitz latzetik parrasta bizirik horni.

## LISANDRO

Ai ene! Zinez, betiere dut nonahi nik irakurri,  
bai eta entzun ere zeinahi ipuin zein istoriotan,  
maitasun zintzo baten bidea ez zela inoiz leuna;  
dela zelako maitakide bat odolez bestelakoa...

## HERMIA

Bai tamalgarri! Lar gora izan behekoari lotzeko.

**LISANDRO**

Edo, bestela, desegokia urteei dagokienez...

**HERMIA**

Bai penagarri! Lar zahar izan gazteari uztartzeko.

**LISANDRO**

Edo, bestela, lagunen mende egotea hautespena...

**HERMIA**

Erdiragarri! Maite-hautua inoren begien baitan.

**LISANDRO**

Edo, hautuan bihotz-kidetza halere izanez gero,  
gerrak, Heriok edo gaitz batek zuten setiatzen hura,  
bilakaturik instant batean galkor, nola baita hots bat;  
itzal bat nola arin; iheskor, amets hutsal bat irudi;  
labur, nola den tximistargia gau ikatz kolorekoan,  
deblauki hortxe danba baititu zeru-lurrak bistaratzen,  
eta inork «Han!» oihukatzeko beta ere eman gabe,  
ilunak bere ahutz beltzera irensten baitu guztia:  
dirdai biziak hain dira tanpez arras distiragabetzen.

**HERMIA**

Hori badute sufritu beti maitale finek munduan,  
hala du noski garbi ezarri lege zorrotzezpatuak.  
Dezagun, bada, har proba latz hau pazientzia zuhurrez  
—hagitz baitugu maitariengan ohiko sufrikario—  
maitasun-kontu arruntzat, nola uste, amets, hasperenak,  
irrika eta malko sarriak, bihotz-zoramenaren lor.

**LISANDRO**

Arrazoi ona. Adizu, beraz, Hermia bihotzekoa.  
Izeba bat dut, alargun maratz, senar zuenari esker  
ondasuntsua, eta jakizu ezen ez duela haurrik.  
Zazpi legoaz haren etxea dago Atenastik urrun;  
izeba horrek beti nau hartu ni bere seme bakartzat.  
Hantxe gintezke, Hermia laztan, ezkon biok elkarrekin:  
atenastarren lege zorrotzak ez du leku hartaraino  
guri jazarriz heltzerik. Baldin, beraz, zuk maite banauzu,

egizu bihar aitarenetik iluna denean ihes,  
eta basoan, hiritik irten eta legoa batera,  
—ni non topatu zintudan behin Helenarekin zeundela,  
hara bilduak,jai-lege denez, maiatz-goiz bat ospatzera—,  
hantxe egongo natzaizu ni zain.

### HERMIA

Ene Lisandro laztana!

Zin degizut nik, Cupido eta haren arku bortitzenaz,  
haren gezirik onenaz —buru zorrotza urrez duenaz—,  
Venusen usozuri ederrenxalotasunaren bermez,  
arimak lotuz maitezko lanak sustatzen dituen horrez,  
su hartaz zeinak baitzuen hartu Kartagoko erregina  
troiar maltzurra belape hartan zelako alde egina—,  
gizonek inoiz mundu honetan hautsiriko zin guztiez,  
—ugariago emakumeek eginak baino, izatez—,  
esan didazun leku horretan, aipatu duzun orduko,  
huts egin gabe naizela bihar zurekin ni elkartuko.

### LISANDRO

Eutsi hitzari, ene laztana. Hara, hor dator Helena.

*Sartu HELENA.*

### HERMIA

Jainkoak guarda, Helena eder, nondik nora zabilzkigu?

### HELENA

Eder diozu? Eder hitz hori ez duzu ene eredu.  
Zure ederra du Demetriok maite: bai eder atsegin!  
Zure begiak, izar oparo; mihia, berriz, aire fin,  
hegatxabala artzain batentzat den baino gozatsuago,  
noiz ere duten gari berdeak eta elorri-pipilek aro.  
Gaixotasuna kutsakorra da: ailu graziak hartatik,  
kutsa dakidan niri zurea, Hermia, joan aurretik;  
belarri honi, zure ahotsa; begi bioi, zure soa;  
ene mihiak zuretik luke hartuko soinu gozoa.  
Enea balitz mundu osoa, Demetrio utziz kanpo,  
gainerakoa nuke emango zure lekuan jartzeko.  
Oi, irakatsi nola duzun zuk so egiten, eta nola  
Motz duzun lotzen Demetrioren bihotz-hegada zabalara.

**HERMIA**

Beltzuri diot egiten, eta berdin maite nau halere.

**HELENA**

Irakatsiko ahal dit horrek irri egiten dotore!

**HERMIA**

Ernegazioz dut hartzen, eta hark, berriz, ni amodioz.

**HELENA**

Ailute ene otoitzek ere halako indarra inoiz!

**HERMIA**

Zenbat eta ni gaitzituago, hura ene zaleago.

**HELENA**

Zenbat eta nik begikoago, hura ene etsaiago.

**HERMIA**

Txoratu bada, ez da, Helena, ene errua batere.

**HELENA**

Ez, baizik zaren eder horrena; ainu erru hori neure!

**HERMIA**

Lasai, Helena; ez du gaurgero ni ikusterik izango,  
Lisandro eta biok baitugu hemendik ihes egingo.  
Lisandro begiz jo artean zen, aitor dezadan egiaz,  
paradisu bat bezalakoa ene irudiz Atenas.  
Ai ene, gero: maite dudanak hain ditu grazia finak,  
non egin baitu zeru zenetik infernu jasanezin bat!

**LISANDRO**

Zuri dizugu, orain, Helena, zertan garen agertuko.  
Bihar gauean —Febek goratik, egoki zaion orduko,  
bere behatze zilarrezkoa jartzean ur-mirailean,  
perla likidoz apainik jantziz belar izpiak zelaian,  
tenore horrek maite-ihesak baititu isilperatzen—,  
dugu Atenas behin betiko urrun uztea pentsatzen.

## HERMIA

Eta basoan—non guri bioi sarri baitigute eman  
udaberriko lehen liliek ohe eder bat non etzan,  
barrenok hustuz geure arteko isilmandatuen gozoz—,  
Lisandro eta biok batuko gara gogoz eta asmoz.  
Hortik aurrera, hiritik soak ditugula aldaratzen,  
hasiko gara lagun berriak arrotz artean bilatzen.  
Adio zuri, jolaslaguna: gugatik otoitz egizu.  
Merezi duzun zorte on hori Demetriok bekarkizu.  
—Eutsi hitzari, Lisandro: beude baraurik gure begiak  
maitale finen janariz, bihar doi jo arte gau-erdiak.

## LISANDRO

Hitzean nago, ene Hermia

*Irten HERMIA.*

Helena eder, adio;  
Zu hartaz bezain maitemindurik bego zutaz Demetrio!

*Irten.*

## HELENA

Zein diren batzuk beste batzuen aldean zoriontsuak!  
Atenastarrek jotzen naute ni Hermia bezain edertzat.  
Zertako, baina? Ez baitu uste hala denik Demetriok;  
Hark ez du nahi jakin hain garbi dakiena beste orok.  
Huts egiten du hala grinatuz Hermiaren begi-soaz,  
eta nik berdin bera miretsiz dohain ugarien kausaz.  
Kaskarren eta doilorren hori, ezein balio gabea,  
amodioak bihur dezake bikaintasun, dohain, era;  
amodioak ez du ikusten begiez, gogoaz baizik:  
Kupido dute noski margotzen hegaldun baina itsurik;  
zetzua zer den haren gogoak den gutxienik ez daki:  
hegalek eta begirik ezak oldar zorora zuzenki.  
Amodioa haurtxo bat dela jo izan da beti berdin,  
hain sarri baitu uste ustelez aukeratzean huts egin.  
Haurtxo maltzurrek jokoan nola duten elkar engainatzen,  
hala Kupido haurtxoa ere zin-hausle da non ere den.

Demetriok dit, begia jarri arte Hermiaren soan,  
txingor halako zin-jasazekin enea zela osoan,  
eta, txingorrok sentitzerako Hermiaren zerbait bero,  
horra hor urtu eta desegin zin-erauntsi oro.  
Esango diot nola Hermia ihes egitekoa den;  
orduan baietz bihar gauean basora etorri men-men  
haren atzetik. Tira, halako berri-emateagatik  
nik esker onik jasotzen badut, ez da gutxi harengandik.  
Hantxe dut, baina, neure samina aberasteko asmoa,  
hura ikusiz, hala heltzean nola uztean basoa.

*Irten.*

**IRASAGAR**

Konpainia guzia al da hemen?

**BARREN**

Hobe zenuke orotara deitu, banaka, gidoiaren arabera.

**IRASAGAR**

Hemen duzue bakoitzaren izena, egokiro esleitua atenastar jendearen artean, duke-dukesen aurrean jokatzeko eztei-gaueko gure txolartean.

**BARREN**

Lehenik, Peru Irasagar gurea, esan zer dugun antzezgai; gero, irakur itzazu komedianteen izenak, eta doala aurrera kontua.

**IRASAGAR**

Hara, zera dugu gaia: «Komedia ezinago lazgarria, Piramo eta Tisberen heriotza ezinago krudela».

**BARREN**

Gutziz antzezlan bikaina, alajainetan, eta jostagarri ederra. Deitu, bada, Peru Irasagar gurea, komediantek zerrendatik. Jaunok, jarri herrenkadan.

**IRASAGAR**

Erantzun deitu ahala. Xanti Barren ehulea.

**BARREN**

Hemen prest. Esazu zer rol dudan, eta segi aurrera.

**IRASAGAR**

Zu, Xanti Barren, Piramo izango zara.

**BARREN**

Zer da Piramo? Maitari ala tirano?

**IRASAGAR**

Maitari, maitezko txeraz bere buru hiltzaile.

## **BARREN**

Horrek dizkit zenbait malko eskatuko tauletan; hartara ezkerro, kontu egin diezaiela jendeak beren begiei; ekaitzak jariaraziko ditut, samina dut jokatu hein-heinean. Tira: aldartea, halere, tiranotako dut nik; Herkules bat antzez nezake bitxiro, zerbait erraiak urratzekoa, bazter guztiak zarrastatzekoa.

Suminezko zafradak  
eraginik zirrarak  
espetxeen sarrailak  
hausteko hainbeste.  
Eta Feboren orgak,  
hain distiratsu gorak,  
patuaren asmoak  
hala honda ditzake.

Ederra, bai jauna! —Orain, izendatu besteak. —Herkulesen eitea da hori, tirano batena; maitari bat samintsuago da.

## **IRASAGAR**

Patziku Txirul hauspo-konpontzailea.

## **TXIRUL**

Hemen, Peru Irasagar.

## **IRASAGAR**

Txirul, Tisberena egin behar duzu zuk.

## **TXIRUL**

Zer da Tisbe? Zaldun ibiltari bat?

## **IRASAGAR**

Piramok maitatu behar duen dama duzu.

## **TXIRUL**

Ez, alafede, ez eman emazte-rolik niri; bizarra ari zait hazten.

## **IRASAGAR**

Berdin dio: mozorroz jokatu duzu, eta nahi bezain ahots mehez hitz egin dezakezu.

**BARREN**

Aurpegia gordetzerik badaukat, utzi niri Tisbe ere jokutzen; ahots itsuski mehez dut hitz egingo. «Tisne, Tisne»; «Ai, Piramo ene! Ene Tisbe laztana, bihotzeko ene dama!».

**IRASAGAR**

Ez, ez, Piramo behar duzu zuk jokatu, eta zuk, Txirul, Tisbe.

**BARREN**

Tira, segi.

**IRASAGAR**

Txantxon Gosekil joslea.

**GOSEKIL**

Hemen, Peru Irasagar.

**IRASAGAR**

Txantxon Gosekil, Tisberen amarena jokatuko duzu zuk.  
—Manex Moko eltzegilea.

**MOKO**

Hemen, Peru Irasagar.

**IRASAGAR**

Zuk, Piramoren aitarena; nik neuk, Tisberen aitarena.  
—Xamar zurgina: zuk, lehoiarena. —Horra, bada, antzezpena listo hainbestez.

**XAMAR**

Idatzia al duzu lehoiarena? Otoi, hala bada, emadazu, motela nauzu-eta ni ikasten.

**IRASAGAR**

Hitzetik hortzera ari zaitezke, ez baita orro egitea besterik.

**BARREN**

Uztazu lehoiarena egiten ere: orro egingo dut; orro, giza bihotz oro astintzeko lain; orro, halako gisan, dukeak esango baitu: «Egin beza orro berriro, egin beza orro berriro».

## **IRASAGAR**

Ikaragarriegi arituz gero, izua eragingo diezu dukesari eta damei, eta garrasika hasiko dira. Arrazoi nahikoa bertan urka gaitzaten guztiok.

## **GUZTIAK**

Jo eta bertan urkatu, amaseme guztiok.

## **BARREN**

Bai horixe, adiskideok: horrela izuz ateraz gero damak beren senetik, ez dute izango beste aburubiderik gu urkatzea baino. Nik, ordea, ahotsa argal apaldu, eta hain emeki egingo dut orro, nola usakumetxo batek; gozo-gozo egingo dut orro, urretxindorak nola.

## **IRASAGAR**

Ez da zuretzat egoki Piramoren rola besterik; aurpegi eztiko gizona baita Piramo; gizon egokia, uda-egun batez ikusi ohi den tankerakoa; dotorezia handiko gizon xarmagarria: nahitaez behar duzu, bada, zuk egin Piramorena.

## **BARREN**

Egingo naiz, bada, horren kargu. Zer bizar nuke onena hori antzezteko?

## **IRASAGAR**

Tira, zeuk aukeratu.

## **BARREN**

Ez dakit zein jantzi: edo harako bizar lasto-kolorea, edo beste laranja-marroixka hura, edo gorrindola. Edo frantses koroaren koloreko beste hura, hori-horia dena.

## **IRASAGAR**

Frantses koroa horietatik zenbaitek ez dute ilerik batere jada; hartara, musu-garbi jokatuko duzu. Hor dituzue, baina, zeinek bere jokatu beharra; eta arren eskatzen dizuet, eta biziki erregutzen, ikasiak izateko antzezgaiok bihar gauerako; eta enekin elkartzeko jauregiko basoan, hiritik milia batera, ilargipean. Han dugu

entseatuko, zeren, hemen hiri barruan elkartuz gero, atzetik etorriko baitzaigu jendea, eta agerian geratuko zer ari garen. Bien bitartean, nik eskuarte-zerrenda bat idatziko dut gure antzezlanak behar dituenekin. Otoi, ez huts egin.

### **BARREN**

Han bilduko gara, eta hala aukera izango guztizko irrits gordin eta kemen biziz entseatzeko. Saiatu gogor; eutsi goiari. Adio.

### **IRASAGAR**

Dukearen haritzean dugu hitzordua.

### **BARREN**

Ongi da; kale egiten duena, egin du harenak.

*Irten.*

*Sartu, bakoitza alde batetik, MAITAGARRI BAT eta MATTIN.*

### **MATTIN**

Hara, izpiritu! Nondik nora zabiltza?

### **MAITAGARRIA**

Mendien eta ibarren gainetik,  
sastraketan, sasietan zehar,  
parkeen eta hesien gainetik,  
uretan eta suetan zehar,  
noranahi nabil ni,  
arinago ilargi-bola baino;  
maitagarrien erreginaren zerbitzari naiz,  
landak pizteko haren tantakaz ihintzaren jaiz;  
sanjose-sanlore garaiak ditu zaintzaile fin hark;  
urrezko haien gainjanzkietan han-hemen titak:  
hauek errubi, maitagarrien dohain xaloak,  
orezta bitxi non diren bizi haien gozoak.  
Behar dut bildu ihintz tantatan noski aletza,  
perlaz jantzeko lili-belarri gordin bakoitza.  
Adio, bada, izpiritu sor, amaitu dut zeregina;  
Aurki da hemen, elfoak lagun, maitagarri-erregina.

### **MATTIN**

Erregek jaia du antolatu hemen arratsetik hara:  
kasu ez dadin erregina hel inola haren bistara;  
Oberon baitu sumin bizitan guztiz ere iratua,  
zeren eta hark orain baitauka bere mirabe hartua  
mutil eder bat, noizbait ostua indiar errege bati.  
Halako ume maitagarririk ez du oraino atxiki,  
eta Oberon jeloskor dabil: nahi luke mutil fina  
segizioko zaldun eramán oihan birjinetan barna.  
Erreginak du, ordea, jada, mutil zoragarri hori  
lore-koroaz jantzirik egin guztizko bere pozgarri.  
Ez dira, bada, inoiz elkartzen biak baso-zelaietan,  
iturri garden ez izar-argi distira-izpitsuetan,  
baizik hain dira gogor liskartzen, non elfoak, izaturik,  
bizkor baitira ezkur gainetan gordetzen haien bistatik.

## MAITAGARRIA

Edo itxuraz naiz ni tronpatu eta nahasi erabat,  
edo zu zara iratxo maltzur eta gaizto hori zeinak  
Mattin Onpuska baitu izena; ez al zara menturaz zu  
herrietako neskei diena eragiten hainbat izu,  
esnea gainez gabetzen eta eiherak urritsu uzten,  
eta apetaz etxeko andre estua larriagotzen,  
baita inoizka aparrik gabe motel uzten edaria,  
gau-bidaztiak galbideratzen, haien kaltez zuk irria?  
Galtxagorri zein iratxo maite deritzutenei diezu  
zuk zeuk egiten behar den lana, eta haiek bai zortetsu:  
Ez ote zara diodan hori?

## MATTIN

Zuzen zabiltza, egia;  
Ni naiz harako gau iluneko ibiltari jostaria.  
Olgetaz diot nik Oberoni irria eginarazten,  
zaldi indabez gizen-gizen bat dudalarik engainatzen  
behoka gazte baten itxuran irrintzika ezkututik;  
edo zelatan egoten nauzu atso baten katilutik,  
txermen erre bat banintz bezala, halakoaren gustura,  
eta, hark dzanga edan orduko, hor naiz plaust jauzten kanpora,  
utzirik haren papar zimela garagardotan igeri.  
Amona xahar zuhur bat nola, kontu triste bat kontari,  
hiru hankako aulkizat noski nauen tronpaturik hartzen,  
popa azpitik kentzen natzaio, eta hantxe da abailtzen,  
«kontxo!» eginez espantu handiz, eta han hasten eztulez;  
lehertzen baita lagunartea eskuak gerrian barrez.  
Bozkariotan iji-ajaka, bihotz-zinez dute esan  
jostagarri bat ederragorik inoiz ez dela han izan.  
Aire, ordea, maitagarri fin, hor non datorren Oberon.

## MAITAGARRIA

Eta hor ene andre goiena. Ezin hona gabe egon!

*Sartu, alde batetik, OBERON, bere segizioarekin; bestetik, TITANIA,  
berearekin.*

## OBERON

Elkartze gaitz ilargitan, Titania harroa.

## TITANIA

Zer, Oberon jeloskorra! Maitagarriok, aire:  
zin egin dut ez gaurgero hartzea ohaidetzat.

## OBERON

Zaude, purtzil haizetsua: ez al naiz zure jauna?

## TITANIA

Zure andrea naiz, beraz; baina badakit nola  
maitagarrien lurretik ihes eginik zaren  
Korinen itxuran egon hantxe ordu guztiez,  
xaramela jotzen eta maite-bertsoak jartzen  
Filida amultsuari. Zer zara ari hemen,  
Indiako azken bazter mortutik etorria?  
Ezen beste, alafede, amazona bipila,  
zure dama oski-luze, maitale gerlaria,  
Teseok du emaztetzat hartuko, eta noski  
zatoz ohe-poza eta ongia opatzera.

## OBERON

Lotsagabe ote zara ausartzen, Titania,  
Hipolitarekiko nik dudana salatzen,  
jakinik Teseorekin zer duzun dakidala?  
Ez al zenuen aldendu gau dirdaitsu batean  
Perigeniarengandik, zuela gogatua?  
Eta Egle ederraren fedea hautsarazi,  
eta berdin Ariadna zein Antioparena?

## TITANIA

Irudipenon sorburu jeloskeria duzu,  
ez baikara inoiz, uda berritu denez gero,  
elkartu gu ezein mendi, ibar, oihan, larretan,  
iturri lausadun edo erreka lezkatsutan,  
ez eta itsasoaren ertz bateko hondartzan,  
kiribilez dantzatzera haize txistukarian.  
Zure liskarrokin, baina, giroa duzu hautsi,  
eta hargatik haizeek, gu hauspotuz alferrik,

mendekuz dute itsaso barrenetik xurgatu  
hainbat laino satsu, zeinek, lurrera eroririk,  
hain baitituzte harrotu ibaien jarioak  
nonberen uharketatik gainezkatu baitira.  
Idiak du uztarritik alferrik tira egin;  
izerdi hutsa goldean, eta arto berdea  
bertan da usteldu, gazte artean bizar gabe.  
Eskorta huts-hutsik dago zelai urez itoan;  
beleak dira gizendu ardi sarraskituez;  
errota-jokoa horra lokatzez estalia,  
eta belaze joriko labirinto bitxiak  
orain dira urrats faltaz ezin bereizizkoak.  
Gizaki hilkorak horra neguaren huts-minez;  
ez da gauen gozagarri eguberri-kantarik,  
eta goitik ilargiak, uren gobernatzaile,  
amorruez zurbil, airea du guztiz melatua,  
erreuma-gaitzak daitezen hainbatez ugaritu.  
Giro makur horrek joak, urte sasoiak oro  
tankera aldatuz doaz. Izotz kopet-zuria  
arrosa gorriminaren altzo freskora jausten,  
eta negu zaharraren lei-koroa mehean  
udako pipil gozoko xingola urrintsu bat  
burla-kutsuz da paratzen; udaberria, uda,  
udazken birkimatua, negu sumina, dira  
bestela jantzi-berritzen, eta mundu zurtua,  
berrien berri, ez daki jada zein zein den ere.  
Eta zorigaitz-ondore ugari hori dator  
gure ika-mika eta istilu honetatik,  
jatorrian gu baikara zorigaitzon guraso.

## **OBERON**

Konpon ezazu, orduan; zerorren baitan dago:  
Ez du zertan Titaniak bere Oberon gaiztu.  
Zer dut eskatzen?: mutiko sehaskatik ostu bat  
ene morroi izan dadin.

## TITANIA

Etsi beharko duzu:

ez du lur xarmatu honek haur horrenik balio.

Ene gurtzakoa zuen mutiko horrek ama,

eta, India aldeko gau-giro lurrintsuan,

sarri gara elkarrekin berriketan aritu,

eseririk Neptunoren hondartza horietan,

uretan doazen ontzi merkatariei beha,

irri eginez ikusiz bistara sortzen belak,

bapo sabel-handiturik haize bipilarekin.

Haien antzera hor ditu, igerilari eder,

ene gurrak, haurdun ezkutaritxo finaz,

ontzi horien ildotik lurrak oro korritu,

oparitxoak ekarriz eta berriz itzuliz,

bidaia batetik nola, oparo hornitua.

Hilkor izaki, ordea, mutilaz da ama hil;

harengatik dut nik, bada, haur eder hori hazten,

eta amagatik ez naiz hartatik bananduko.

## OBERON

Luzaro al zara oihan honetan egoteko?

## TITANIA

Ausaz, gaurtik Teseoren eztei-eguneraino.

Gogo otzanez bazatoz dantza-ingurutzora,

ilargi-ospakizunak ikustearren, erdu;

bestela, utzi bakean, nik zuri bezalaxe.

## OBERON

Emadazu mutil hori, eta zurekin noa.

## TITANIA

Erreinoa, haren truke, gutxi. Maitagarriok!

Haserre bide dukegu, hemen jarraituz gero.

*Irten TITANIA segizioarekin.*

## OBERON

Zoaz, bada, noranahi: ezetz utzi baso hau  
nik ordaina eman gabe irain latz honengatik.  
—Mattin amultsua, zatoz. Gogoan duzu nola  
behinola, nengoela harralde goi batean,  
entzun nuen sirena bat, izurde baten zaldun,  
hain harmonia eztizko xuxurla bat egiten,  
itsaso zakarra baitzen haren kantaz jabaldu,  
eta zenbait izar jalgi esferetatik zoro,  
uhandrearen soinura?

## MATTIN

Bai, jauna, gogoan dut.

## OBERON

Aldi hartan berean dut, zuk ezin, nik ikusi,  
ilargi hotzaren pean lurrean gaindi hegan,  
Kupido armak harturik. Jomuga du hautatu  
bestal txit eder bat bere sortaldeko tronuan,  
eta arkutik du jaurti zorrotz maite-azkona,  
ehun mila bihotz ere litzakeena zula.  
Baina Cupidotxoaren azkon sutsua hara  
iraungi ilargi urtsu, xahuaren izpitan,  
eta hala da gurtzaile inperiala irten,  
birjinazko gogoetan, bihotz-katetik aske.  
Ni nintzen ohartu, baina, non zen gezia jausi,  
jo baitzuen loretxo bat sortaldeko lurretan;  
lehen zuri-zuri; orain, gorri maitasun-zauriz,  
dontzeilek baiteritzote «maitasun lelotua».  
Lor ezazu lore hori, eta itzul nigana  
lebiatanak igeri dagien bezain zalu.

## MATTIN

Gerriko bat dut jarriko lurraren jira-biran  
berrogei minutuan doi.

*Irten.*

## OBERON

Zuku hori eskuan,  
Titania lokaturik harrapatuko, eta  
hantxe diot isuriko begietan tantaka.  
Esnaturik hurrenik hark ikusten duen zera,  
dela lehoi, dela otso, dela hartz, dela zezen,  
dela tximu muturluze, dela tximino maratz,  
hari dio erasoko amodiozko karrez.  
Gero, kendu baino lehen intxixua begitik,  
badut-eta hartako gai den beste belartxo bat,  
hor dut limurtuko niri eskaintzera pajea.  
Nor dator hona, ordea? Ikusezina naiz ni:  
adi egongo naiz, bada, zer solas darabilten.

*Sartu DEMETRIO, HELENA atzetik jarraika.*

## DEMETRIO

Ez zaitut-eta nik maite, ez zakizkit zu jarrai.  
Non duzu Lisandro, non da Hermia eder fina?  
Bataren xerka nabil ni, besteak nau xerkatzen.  
Esan didazu zirela baso honetan gorde,  
eta hona ni lazturaz urraturik hementxe,  
ezin aurkiturik inon bihotzeko Hermia.  
Uztazu bakean, beraz; zoaz zeure bidean.

## HELENA

Zuk nauzu, zuk, erakarri, iman bihotz-latz hori!  
Ez duzu, baina, burdina erakartzen, nik baitut  
altzairu finez bihotza: ez erakarri hala,  
eta baietz kendu niri zugarako jaidura.

## DEMETRIO

Gogatzen ote zaitut nik, edo galant mintzatzen?  
Ala, aitzitik, zintzoki egia garbiz dizut  
esaten zu maitatzeko, ezetz, ez naizela gai?

## HELENA

Eta horregatik zaitut are maiteagotzen.  
Zeure txakurtxo nauzu; zenbatez, Demetrio,  
gogorrago zuk astindu, hanbatez nik zu kutun.  
Halakotzat har nazazu, mespretxa nazazu, jo,  
bazterrean utzi, baina emadazu baimena,  
ni duin ez izanagatik, ondotik jarraitzeko.  
Zein leku txarragoa nik zure maitasunean  
—eta halere guztizko ohore, enekiko—,  
ezen zuk erabiltzea zeure txakur gisara?

## DEMETRIO

Ez tentatu gehiegi ene barneko herra;  
aski baitut gaizkitzeko zuri so egitea.

## HELENA

Berdin nauzu ni gaizkitzen zuri ez so eginez.

## DEMETRIO

Zeure lotsa ona duzu zuk jartzen hor zalantzan  
hiritik alde eginik eta hala gomendaturik  
maite ez zaituen baten esku eta gurara,  
kontu egin gabe, xalo, gauaren arriskuei,  
leku jendegabe honen aholku makurrari,  
birjintasun-altxor fina duzularik jokoan.

## HELENA

Zure bertutea dut nik salbagiri, ez baita  
hau gaua, zure aurpegi hori dakusadala;  
ez zait, beraz, iruditzen nagoenik gauean.  
Ez du falta baso honek konpainia zabalik,  
enekiko zu baitzara mundu zabal guztia.

Zertan esan, bada, inork bakarrik nagoela,  
mundu guztia dudala hortxe niri begira?

## DEMETRIO

Zugandik naiz itzuriko eta sasitzan gorde,  
eta hor zaitut utziko basapiztien mende.

## HELENA

Basatiena ez da zu zaitudan bezain gogor.  
Zoaz nahi duzunean. Alda bitez kontuak:  
Apolo ihesi, eta haren atzetik Dafne;  
usoa grifo-ehiztari, eta orein otzana  
tigreari oldarturik. Alferrik, ai, oldarra:  
izutia ehiztari, bihoztuna ihesi.

## DEMETRIO

Aski dugu horrenbestez: utzazu joan nadin;  
edota, jarraituz gero, ez uste izan ezen  
kalterik gabe basoan utziko zaitudanik.

## HELENA

Ai, tenpluan zein hirian, eta zelaian berdin,  
kalte egiten didazu. Mesedez, Demetrio!  
Zeure bidegabekizunak duzu ene sexua belzten:  
maitelanik ezin egin, gizonekin paretsu;  
gu gorteagai garelarik, ezin guk gorteatu.

*Irten DEMETRIO.*

Enetzat, zuri jarraituz, infernua zeru da:  
bizi-hiltzea hain maite dudan horren eskura.

*Irten HELENA.*

## OBERON

Bihotzez adio, ninfa. Aurki ibili baietz  
zu iheska eta hura zure atzetik maitez.

*Sartu MATTIN.*

Ba al dakarzu lorea? Ongi jin, bidaiari.

## MATTIN

Bai jauna, hementze duzu.

## OBERON

Mesedez, emadazu.

Ibaiertz bat bada non denbasa-ezkaia pujan,  
udaberri-lili eta bioletak kulunkan,  
abaro jori dutela atxapar urrin-fina;  
musketaz, otso-laharrez, arrosadi bikaina.  
Han ohi du Titaniak lo egin gaualdian,  
liliotan lokarturik dantza-bozkariotan;  
han du sugeak botatzen larru esmaltezkoa,  
maitagarri bat janzteko txit neurri onekoa.  
Honen zukuaz dizkiot begiak igurtziko,  
eta fantasia dorpez leporaino beteko.  
Har ezazu zuk xorta bat, eta jorra basoa.  
Atenastar dama bat da maiteminak txit joa  
gazte destainatsu batez: begiak mutilari  
busti, baina erne, gero: dezala dama hori  
ikus hortxehark lehenik. Ezagutuko duzu,  
atenastar jantziz nola den dotore-galatsu.  
Behar duzu utzi, kasu, joago maiteminaz  
mutil hori neskaz orain neska den baino hartaz.  
Eta zatoz berriz hona oilarrak jo orduko.

## **MATTIN**

Zaude lasai, jauna, zintzo dut ordena beteko.

*Irten.*

*Sartu TITANIA, segizioarekin.*

### **TITANIA**

Orain, biribilketa bat eta xarma-kanta bat;  
gero, zoazte hemendik minutu heren batez:  
batzuk, harbeltzak hiltzera arrosa-pipiletan;  
batzuk, hegal larru-finak txontei guduz kentzera  
elfotxoan kapatako; bestetzk, isiltzera  
ontz zaratatsua, uluz baita hasten gauero  
zurturik gure bitxiaz. Kantuz sehaskatu ni;  
gero, ekin zereginei, har dezadan atsedean.

*Maitagarriak kantari.*

Zuek, suge orbantsu mihi bikoitzeko,  
sagarroi arantzatsu, ez egin bisita;  
uhandre eta musker, ez izan kalteko,  
ez ezazue gure erregina zizta.  
Urretxindorra, txioz ari,  
lotako kanta kantari,  
txiru-txirulari, txirulari:  
ez bedi minik,  
ez intxixu gordinik,  
hel gure andre amultsuagana.  
Gau on, bada: lotxo hor da.  
Armiarma ehule, ez hona etorri;  
ospa, hanka luzeko iruleok, ospa!  
Kakalardo beltz-beltzok, hemendik at mugi;  
zomorro, barraskilo, gaur ez egin hozka.

### **MAITAGARRIA**

Aire hemendik, goazen! Horrekin, dena ongi;  
gera bedi gutako bat hor ondoan zaindari.

*Irten MAITAGARRIAK. TITANIA lo.*

*Sartu OBERON eta lorea zukutu TITANIAREN betazalen gainera.*

## OBERON

Esnatzean ikusten duzun hori  
jo zeure maitakide zoragarri;  
maita ezazu bihotzez txit larri.  
Dela mozolo, katu edo otso,  
pantera edo aketz zurda-moltso,  
zeri ere lehenik egin zuk so,  
huraxe duzu zeure laztan gozo:  
bele biz, halere, eta ez uso.

*Irten.*

*Sartu LISANDRO eta HERMIA.*

## LISANDRO

Mintxuriz zaude, ene laztana, oihanean ibiltzeaz,  
eta, egia aitortzekotan, bide zuzenik ez dakit.  
Hementxe gara atsedenduko, Hermia, zure baimenaz,  
eta itxaron egun berria heldu arte sortaldetik.

## HERMIA

Ongi, Lisandro: bila ezazu ohandze bat aproposa;  
Urertz honetan neure burua dezadan hala nik pausa.

## LISANDRO

Soropil batez burkoa dugu moldatuko hain apainik;  
bihotz biak bat, ohe bakar bat; bi gogarte bat eginik.

## HERMIA

Ez, ez, Lisandro, bihotzez zaitut otoizten, ene laztana:  
harago etzan; etzan hainbeste limurtu gabe nigana.

## LISANDRO

Oi, onez adi, maite ezta, ene asmoen xaloa!  
Maitasunak du maite-bilkuran hartzen zentzu zinezkoa.  
Alegia, nik bihotza daukat hain zureari loturik,  
ezin baitugu egin inola bihotz bat baino hartatik:  
bi gogarte fin kateatuak maite-zin batez elkarri;  
hots, bi arima, zintzoki beti fede bat berean ari.  
Zure aldetik, bada, ez niri ohe-lekurik ukatu;  
zeren, Hermia, zinez natzala ez bainatza gezurrez han.

## HERMIA

Poliki daki, gero, Lisandrok aritzen hitz-jolasetan.  
Kalte itzela letorke ene dama-izen onarentzat,  
Hermiak balu jo izan nahi Lisandro gezurtaritzat.  
Halere, otoi, lagun jatorra, maitezko adeitasunez,  
harago etzan; giza jendeen lotsa onaren araez.  
Banantze hori tarteko dela —balia bekizkit hitzak—,  
bertute-mirail bihurtzen dira neska-mutil ezkongaiak.  
Horraino, bada, urrundu zaituz; gau on, laztan, dagigun lo:  
Ez bedi alda maitasun hori munduan bizi zareino.

## LISANDRO

Amen bai amen, diotsat otoitz eder horri bihotzean.  
Bizitza bertan gal dezadala leialtasuna galtzean!  
Hemen natza ni; loak biezazu atsedean betea eman!

## HERMIA

Opa didanaz opatzaileak berdin begi lo bakean.

*Lo geratzen dira.*

*Sartu MATTIN.*

## MATTIN

Oihan zabala ibiliagatik,  
ez dut nik aurkitu Atenastarririk,  
zeinaren begietan nezakeen  
proba lore hau zertako gauza den.  
Gaua eta isila. Nor dugu hor?  
Atenastar jantziz gizona lo sor.  
Egin dio —nagusiak esana—  
atenastar dontzeilari destaina.  
Eta horra neska, lo sakonean,  
lur hotz, busti, zikinaren gainean.  
Gaixoa! Etzan nahi eta ezin  
bihotz-gogor adeigabe honekin.  
Hor dizut, zeken, isuri begira  
xarmagailu honen ahal guztia.  
Esnatzean, maitasunak dezala  
hustu logalez zure betazala.  
Atzar, bada, nik lekuok hustean;  
Oberongana noa lasterrean.

*Irten.*

*Sartu DEMETRIO eta HELENA, lasterka.*

**HELENA**

Zaude, nahiz ni hor bertan hil zuk, Demetrio bihotzeko.

**DEMETRIO**

Serio dizut agintzen niri ez honela jazartzeko.

**HELENA**

Oi, ausaz nauzu ilun beltzean hemen utziko? Ez, arren.

**DEMETRIO**

Zaude, bada, hor, zeure galbidez; bakarrik naiz ni joanen.

*Irten.*

**HELENA**

Oi, hustua naiz arnasa biziz, beti lasterka atzetik!  
Otoiztuago eta biltzen dut grazia gutxiago nik.  
Bai zorientsu, aldiz, Hermia, nonahi ere den, berez,  
hain baititu hark begi gozoak beteak dohain ederrez.  
Horren distirant begi ederrok nola ote? Ez gatz-malkoz:  
hartara balitz, eneak dauzkat ikuziago halakoz.  
Ez, ez, hain nauzu ni itsusia nola oihaneko hartz bat;  
piztiak ere itzurtzen zaizkit harturik ikara gaitzak.  
Ez da mirari, bada, ez denez, Demetriok oin-arinik  
nigandik badu, munstro bat bainaiz, ihes egiten bertatik.  
Zer mirail oker itxuragabe tronpagarrik nau ekarri  
konparatzera Hermiarekin, soa baitu zoragarri?  
Nor da hor, baina? Hara Lisandro! Hortxe lurrean etzanik!  
Hilik? Ala lo? Ez dut ikusten ez odolik ez zauririk.  
Lisandro, arren, bizi bazara, jaun jator hori, esnatu!

**LISANDRO**

Bai eta gogoz sute bizira zure amarez oldartu.  
Helena garden! Naturak hor du arte fina erakusten,  
bular barnean utzirik niri zure bihotza ikusten.  
Non sartua da Demetrio, oi, non arraio dago?, esan:  
gal bedi izen doilor hori gaur ene ezpataren puntan!

## HELENA

Ez halakorik esan, Lisandro; ez halakorik inola.  
Zer axola du hark badu maite Hermia? Zer du axola?  
Zu zaitu-eta Hermiak berdin maite: behar duzu pozik.

## LISANDRO

Hermiarekin pozik ni, zera! Ez, txit damutua baizik,  
hainbeste une enoiagarri nik harekin xahaturik.  
Ez dut Hermia, baizik Helena, maite bihotz-bihotzeko;  
izan ere, nork ez du bele bat uso batez trukatuko?  
Arrazoiak du kate motzean lotzen giza nahimena:  
hark dio, bada, zu zaitudala denik eta hoberena.  
Haztean, gauzak ez dira heltzen iritsi arte sasaira;  
ezin ni, beraz, gazte izanik, gaurdaino heldu senera.  
Orain, ordea, neuganaturik gaitasun horren dohaina,  
arrazoia da bihurtzen ene gogoaren lemazaina:  
hark nakar zure begietara, non ikusmiratzen dudan  
ipuin bikainik maitasunaren liburu ederrenean.

## HELENA

Zergatik ote naiz ni sortua burla gogor honetara,  
non behar baitut zure eskutik jasan halako pasada?  
Ez al da aski, aski ez al da, esadazu, jaun gaztea,  
egundo ere, inola ere, ez merezi izatea  
Demetrioren begietatik hartzea so bat eztia,  
zuk orain hala zirikatzeke, gaiztoz, ene gabezia?  
Zinez didazu egiten kalte, min didazu, ai, ematen,  
halako txera destainatsuez nauzularik gorteatzen.  
Bejondeizula, hara. Behar dut garbi aitortu, haatik,  
gizabidean zintzoagotzat zinduzkadala, jauna, nik.  
Tamalgarri da dama bat hala, gizon batek gaitzetsia,  
lazki gertatu beharra orain beste batek esetsia!

*Irten.*

## LISANDRO

Ez du ikusten Hermia. —Egin lo, Hermia, lo egin hor;  
ez zaitezela inoiz Lisandro dabilen lekura etor!  
Nola gozoen gehiegiak, neurririk hartzen ez bada,  
min handiena baitakar gero jatunaren sabelera;  
edo gaur berak baztertutako heresia hertsien  
jarraitzaileak baititu bihar jotzen hastiagarrien,  
hala zu, ene gehiegi, ene heresia, gaurtik  
zaitzala jende orok hastia, baina nik oroz gainetik!  
Jantzi behar dut maite-zaldunen adorezko armadura,  
Helena zintzo ohoraturik fin zerbitzatzeko hura!

*Irten.*

## HERMIA[esnatuz]

Arren, Lisandro, arren, lagundu —otoi, ez dut nik indarrik—  
kentzera suge narrastari hau neure golko zauritutik!  
Ai gaixoa ni! Nolako amets dorpeak didan erasan!  
Lisandro, hara, lau haragiok laborriz dauzkat ikaran:  
begitandu zait jaten zidala, oi, suge batek bihotza,  
eta zu irriz zeundela, hartuz haren sarraskiaz poza.  
Lisandro! Ene! Nora ote da? Lisandro! Jauna, zatokit!  
Entzutez kanpo ote? Joana? Ez soinurik ez solasik?  
Ai ene, egin, zauden lekutik, hitz, entzuten badidazu;  
Amorearren, hitz egin!; izuz, ia mintxuritu nauzu.  
Ez? Horra, bada, ez-agerian hautematen ondo dakit:  
edo herio edo zu baietz berehala aurkitu nik.

*Irten.*

### III.i

*Sartu IRASAGAR, XAMAR, BARREN, TXIRUL, MOKO eta GOSEKIL.*

#### **BARREN**

Hemen al gaude denak?

#### **IRASAGAR**

Txintxo-txintxo. Eta hona leku bat zoragarri egokia gure entsegurako. Belaze hau izango dugu antzezleku; elorri-sastraka hau, aldagela; eta arian-arian ekingo diogu antzezpenari, dukearen aurrean jokatuko dugun bezalaxe.

#### **BARREN**

Peru Irasagar,...

#### **IRASAGAR**

Zer diok, Barren gurea?

#### **BARREN**

Badira gauza batzuk Piramo eta Tisberen komedia honetan sekula gustatuko ez direnak. Hasteko, Piramok, ezpata atera, eta bere burua hiltzen du; eta damek ez dute noski halakorik jasango. Zer diozu horren aurrean?

#### **MOKO**

Andre santisimarren! Harrizkotsua da, gero!

#### **GOSEKIL**

Uste dut kendu egin beharko dugula hilketa azkenean.

#### **BARREN**

Ez hurrik eman ere: badakit nola konpondu kontua. Idatzidazu hitzaurre bat, eta hitzaurreak eman dezala aditzera ez diogula inori min egingo ezpatekin, eta Piramo ez duela inork hitzen; eta, hobetoago lotuta uzteko gauza, esaiezu ni, Piramo, ez naizela Piramo, baizik eta Barren ehulea: horrek uxatuko ditu haien beldur guztiak.

## **IRASAGAR**

Izango dugu, bada, halako hitzaurrea, guztia zortziko txikian idatzia.

## **BARREN**

Ez; motz gera ez dadin, hobe zortziko handian idaztea.

## **MOKO**

Ez al dira damak beldurtuko lehoiarekin?

## **GOSEKIL**

Beldur naiz baietz, hitz ematen dizuet.

## **BARREN**

Jaunok, hausnartu ezazue, zeuen kolkorako, horrela taula gainera ekartzea —Jainkoak guarda— lehoi bat damen artera gauza ikaragarria dela, ikaragarria denez; ez baita basatxori beldurgarriagorik lehoi bat bizirik baino; tentuz ibili behar dugu, bada.

## **MOKO**

Beste hitzaurre batek adierazi beharko, beraz, ez dela lehoia.

## **BARREN**

Bai eta haren izena eman ere, eta haren aurpegiaren erdia ikus dadila lehoiaren lepotik; eta berak hitz egin dezala handik, esanez honela, edo antzeko edozer besterantzean: «Damak», edo «Dama galantak, nahi nizueke», edo «Arren eskatzen dizuet», edo «Erregutzen dizuet ez izateko beldurrik, ez dardarka hasteko: ene bizitza zuenaren truke. Uste baduzue lehoi gisa natorrela hona, deus ez luke balioko ene bizitza tristeak: ez, ez naiz halakoa; gizon bat naiz, besteak bezalakoa», eta esan dezala orduan bere izena, eta argi eta garbi adierazi Xamar zurgina dela.

## **IRASAGAR**

Hala izango da, bada. Baina badira bi gauza zail: alegia, ilargia sartzea dena delako aretoan; zeren, dakizuenez, Piramo eta Tisbe ilargitan elkartzen dira.

## **MOKO**

Ba al da ilargirik antzezpena antzetzuko dugun gau horretan?

## **BARREN**

Egutegi bat, egutegi bat! Begiratu almanakean; ilargia noiz den, noiz den ilargia.

## **IRASAGAR**

Bai, bada ilargia gau horretan.

## **BARREN**

Tira, utzi orduan funtzioa egingo dugun aretoko leiho-ohol bat irekia, eta leiho-zulo horretatik sartuko da ilargi xuria.

## **IRASAGAR**

Bai; edo, bestela, datorrela bat elorri sorta batekin eta eskuargi batekin, eta esan dezala Ilargidizdiz pertsonaia bestixuratzerara edo irudizkatzerara datorrela. Eta bada beste gauza bat: horma bat izan behar dugu aretoan; zeren, Piramo eta Tisbe, hala dio istorioak, horma bateko arrakalatik hitz egiten baitzuten.

## **MOKO**

Ez dago inola ere horma bat sartzerik. Zer diozu zuk, Barren?

## **BARREN**

Gizon batek edo bestek behar du irudizkatu Horma; eta dakarrela igeltso puska bat, edo kareore puska bat, edo zuriberri puska bat berekin, horma den seinale. Eta eduki ditzala hatzamarrak honela, eta arteka horretatik xuxurla dezatela Piramok eta Tisbek.

## **IRASAGAR**

Hala izatera, lotua dugu dena. Ea, eseri hor, amaseme oro, eta entseatu zeinek bere zatia. Piramo, zu zara hasten. Zeure solasa amaitutakoan, gorde zaitetz sasitza horretan. Eta berdin guztiak, nor bere txandan.

*Sartu MATTIN atzetik [ikusezin].*

**MATTIN**

Zer dabilzkigu builaka zarpa-zaku baldarrok,  
erregina xarmantaren sehaskatik hain hurbil?  
Zer, gero, jostirudi bat! Entzule izango naiz;  
eta antzezle, menturaz, egokiera badut.

**IRASAGAR**

Hitz egin, Piramo. —Tisbe, hurbildu hona.

**BARREN**

«Tisbe; loreak, eztizko ahogozo higuintsu...»

**IRASAGAR**

«Urrintsu», «urrintsu»!

**BARREN**

«...ahogozo urrintsu.  
Hala duzu zuk arnasa, Tisbe maite laztana.  
Hara, ordea, ahots bat! Zaude apur bat hemen,  
Eta berehala naiz ni itzuliko zugana».

*Irten.*

**MATTIN**

Hara inoiz jokatu den Piramo bitxiena.

*Irten.*

**TXIRUL**

Orain al da ene txanda?

**IRASAGAR**

Bai, arranopola, bai; izan ere, entzun duen zarata bat zer zen  
ikustera baino ez da joan, eta aurki da berriro hemen.

## **TXIRUL**

«Oi Piramo distiratsu, lirio zuriena,  
kolorez arrosa gorri bere sasitzan bikain.  
Oi kemen gaztez jori, zu, judu amultsuena,  
zintzo zaldi bat nekerik ez dakiena bezain.  
Batuko gara, Piramo, Inoren hilobian».

## **IRASAGAR**

«Ninoren hilobian», aizu. Ez duzu esan behar hori oraindik,  
Piramori erantzunez baizik. Erreskadan botatzen duzu  
zeure zatia, bost axola txanda-aldatzeak. Piramo, sartu.  
Pasatu da zure txanda; «ez dakiena bezain» da oina.

## **TXIRUL**

Oi —«...Zintzo zaldi bat nekerik ez dakiena bezain».

*Sartu ostera MATTIN, eta BARREN astaburuarekin.*

## **BARREN**

«Eder banintz ni, oi Tisbe, zeure nindukezu zuk».

## **IRASAGAR**

Hau itsuskeria! Hau txundigarria! Sordindu gaituzte. Jaunok,  
otoitz egin! Ospa egin, jaunok! Lagundu!

*Irten IRASAGAR, XAMAR, TXIRUL, MOKO eta GOSEKIL.*

## **MATTIN**

Jarraiturik nik zaituztet latz jirabiratuko,  
lokatz, sastraka, elorri, sasiartetan zehar.  
Berdin izango naiz zaldi zein txakur ehizako,  
urde zein hartz burugabe, edo su biziko gar,  
irintzi, zaunka, kurrinka eginez eta errez,  
zaldi, txakur, hartz, suarizer dagokien berez.

*Irten.*

## **BARREN**

Zer doaz hor lasterka ihesi? Amarru hau zertu dute ikaratu nadin.

*Sartu ostera MOKO.*

**MOKO**

Oi, Barren, aldatuta zaude! Zer ikusten dut nik zure baitan?

**BARREN**

Zer ikusten duzun? Bada, heure baitako astaburu petoa, ezta?

*Irten MOKO.*

*Sartu ostera IRASAGAR.*

**IRASAGAR**

Jainkoak zaitzala bedeinka, Barren! Itxuraldatuta zaude!

*Irten.*

**BARREN**

Igarrita nagok amarruari. Astotu egin nahi naitek honekin;  
ikaratu, inondik ahal badute. Baina zirkin bat ere ez nauk  
mugituko hemendik, haiek eginahalak eginagatik. Hara-hona  
nauk ibiliko, kanta kantari, aditu dezaten  
ez nagoela ikaraturik.

*Kantari.*

Zozoak, beltza izanagatik,  
laranja-antza mokoak;  
birigarroa soinu hain finik;  
txepetxak motz lumatxoa...

**TITANIA**

Zer aingeruk nau hala esnatzen neure ohe loretsutik?

**BARREN**

Txonta, txolarre, hegatzabala;  
doinu-berdin kuku grisa;  
askok kantari entzun dutela,  
inork tutik ez diotsa.

Izan ere, nork nahi du halako txori ergelaren parean jarri bere burua?  
Nork dio kontra egingo txori bati, nahiz kukuka ari hura etengabe?

## **TITANIA**

Otoizten zaitut, hilkor atsegin, kanta ezazu berriro.  
Belarria dut maitemindua zure kantuaren kausaz;  
begia berdin gatibatua, itxuraz hain zara eder.  
Eta ahalmen bortitz bikainon ahalek bortxaz nakarte  
zin egitera ikusterako zinez zaitudala maite.

## **BARREN**

Esango nuke andrea, eskastxo duzula arrazoia horretako.  
Eta, halere, egia esan, arrazoia eta amodioa aparte samar  
dabiltza elkarrengandik gaur egun; are tamalgarriago,  
zenbait jende prestuk ez baititu adiskidetu nahi. Tira,  
baditut neure ateraldiak nik ere.

## **TITANIA**

Eder halako burutsu zara, begi-bistan dagoenez.

## **BARREN**

Ez hainbestean; baina burubiderik aski izatekotan baso  
honetatik irteteko, badut nahikoa, horrexekin konforme naiz.

## **TITANIA**

Otoi ez egin planik baso hau inola ere uzteko,  
oihan honetan nahi eta ez baituzu egon beharko.  
Izatez bainaiz izpiritu bat arrunten gainetik goia.  
Uda oraindik zerbitzari dut, ene mendeko sasoi;  
eta nola nik maite zaitudan, ez egin hemendik hanka.  
Maitagarriak jarriko ditut zure zerbitzura, eta  
zuretzat dute bitxi ederrik ekarriko itsaspetik,  
eta kantatu lore gainean zu goxo lo zaudelarik.  
Kenduko dizut hilkor baldarron astuntasuna bet-betan,  
izpiritu huts izan zaitezen airezkook garen gisan.  
Ilarlore, Sits, Amaraun eta Ziapeale, zatozte!

*Sartu ILARLORE, AMARAUN, SITS eta ZIAPEALE.*

## **ILARLORE**

Hemen prest.

## **AMARAUN**

Hemen prest.

## **SITS**

Ni ere bai.

## **ZIAPEALE**

Bai eta ni ere.

## **GUZTIAK**

Nora behar dugu?

## **TITANIA**

Izan atsegin eta adeitsu jaun txit bikain honekiko;  
aurrean dantza egiozue, denok salto eta brinko;  
jatera eman mertxika eta mugurdirik gozoenak,  
mahats gorminak, piku berdeak eta masusta hezeak.  
Ostu honentzat ezti-zorroa erlastarren gordailutik;  
kandelatako moztu pixtiori izter argizarikarak,  
eta izeki ipurtargien begi sutsuetan garrak,  
hala laztanak ohera eta ohetik argia duen,  
eta erauzi pinpilinpauxa margoztatuei hegalak:  
haiez haizatuz lotan garbitu ilargi-izpiz begiak.  
Makurtu honi, ene elfoak; egiozue beti men.

## **ILARLORE**

Agur zuri, hilkor!

## **AMARAUN**

Agur!

## **SITS**

Agur!

## **ZIAPEALE**

Agur!

## **BARREN**

Arren begit mesede, jauna; atrebentzia ez bada, zein da berorren izena?

## **AMARAUN**

Amaraun.

## **BARREN**

Nahi nuke ezagupide estuagoa izan berorrekin, gure jaun Amaraun; hatza ebakiz gero, lotsarik gabe erabiliko dut berori. —Berorren izena, jaungoi jatorra?

## **ILARLORE**

Ilarlore.

## **BARREN**

Otoi, goraintzi berorren ama Garau andreari eta berorren aita Leka jaunari. Gure jaun Ilarlore, berorrekin ere nahi nuke tratu sarriagoa banu. —Berorren izena, jauna, arren bai arren?

## **ZIAPEALE**

Ziapeale.

## **BARREN**

Gure jaun Ziapeale, ondo dakit zure pairamenen berri: animaleko idi zati koldar horrek zure etxeko jaun asko eta asko irentsi ditu. Hitz ematen dizut zure senideek malkoak atera izan dizkidatela maiz. Nahi nuke banu tratu sarriagoa zurekin, gure jaun Ziapeale.

## **TITANIA**

Jagon ezazue; ene aurkintzara eraman.  
Ilargia begi urtsuz goitik begira dago,  
eta negar horrek dakar liliena jarraian,  
deitoraturik bortxazko kastitate hertsia...  
Zoazte isilik; lotu laztanaren mihia.

*Irten.*

*Sartu OBERON.*

**OBERON**

Esnatu ote da Titania?  
Ezen, zer zaion lehenik han begietaratu,  
hartaz txoro behar baitu ezin gehiagoan.

*Sartu MATTIN.*

Hor dator mezularia. Zer dugu, mamu txolin?  
Zer atarramentu gauak zuhaizti sorginduan?

**MATTIN**

Erreginak munstro bat du maiteena munduan.  
Hurrean haren aurkintza ezkutu sakratutik,  
hura lozorroan zurrun hantxe zegoelarik,  
zarpatsu-kuadrillatxo bat, atenastar baldarrak,  
ogibide arrunteko behargin pildatxarrak,  
obra bat entseatzeko dira elkartu, zeina  
Teseo bikainari den eskaintzeko egina.  
Kaiku-jende horretatik kaskailurik latzena,  
Piramorena eginez, han utzi du eszena,  
eta oldarrean sartu sastrakadi batera.  
Hala, nik, hain baitzen ona noski egokiera,  
asto baten kaskarraz dut jantzi haren burua.  
Tisberi erantzuteko etorririk ordua,  
han da ostera artixta. Bistaratu delarik  
—antzarrak ehiztaria herrestan ikusirik  
nola, edo belatxinga zango-gorrien aldra,  
garrasika airaturik armaren danbadara,  
nola den sakabanatzen zero goira hegazka—,  
hala, hura ikustean, haren kideek ospa.  
Gure oinatzetan han da bat ziraldoka jausten;  
oihuka laguntza dio Atenasi eskatzen;  
zetzua makaldu eta izu larriak jota,  
sentigabe dena dute sentitzen erasoka,  
jantziak baitizkiete sasiek eramaten;  
maukak, kapeluak, zer ez, oilobustioi kentzen.

Haiek ditut nik xaxatu, akuilutzat izua,  
Piramo hantxe utzirik itxura berriztua.  
Une hartan, hara non den, hala baita gertatu,  
Titania esnaturik astoaz amonatu.

### **OBERON**

Hobeki doa kontua pentsatu baino, aizu.  
Baina atenastarraren begiak al dituzu  
maite-zukuaz estali, aitzakiarik gabe?

### **MATTIN**

Lotan dut hura aurkitu —egina hori ere—,  
eta ondoan zuela atenastar dontzeila:  
esnatzean garbi dago ikusiko duela.

*Sartu HERMIA eta DEMETRIO.*

### **OBERON**

Hago hortxe: hor da-eta gure atenastarra.

### **MATTIN**

Emea hura da, baina ez atenastar arra.

### **DEMETRIO**

Oi, honen maite zaituen bat zuk zergatik duzu hain higuin?  
Garraztasun hau aurkari garratz batentzat litzaizuke duin.

### **HERMIA**

Errietan naiz hasia, baina behar nuke gogorrago,  
ezen beldur naiz ez ote duzun eman zio gehiago  
nik madarika zaitzadan, baldin Lisandro lo hil baduzu.  
Behin odolez zikinduz gero barrenago jo ezazu,  
eta ni ere akabatu.

Ekia ez zen, oi, hain leiala egun argiaren deira,  
nola Lisandro baitzen enera. Nondik nora itzuri da,  
Hermia hantxe lotan utzirik? Errazago da sinesten,  
lurra osorik zulatu eta, ilargiak ote duen  
alderik alde bideaegin erditik, Antipodetan  
bere anaia muzinaraziz eguerdi goiengan.  
Ez da dudarik zuk hil duzula Lisandro zeure eskuaz;  
hiltzaile batek hala behar du, bai, itxura: hain hits, hain latz.

### DEMETRIO

Hala behar du hiltzaile batek itxura, eta hala nik,  
bihotzeraino zure laztasun zorrotz horrek sustaturik.  
Zu, hiltzailea, ordea, horra hor txit distira garbian,  
Venus irudi, ortziko bere esfera ñirñirkarian.

### HERMIA

Zer zaio hori, ordea, ene Lisandrori? Nora duzu?  
Ai, Demetrio, otoizten zaitut, niri hura emadazu.

### DEMETRIO

Haren gorpua nahiago nik neure orei ematea.

### HERMIA

Utik, zakurra! Utik, doilorra! Lortzen duzu nik haustea  
dontzeila finen begiramena. Hil al duzu, esadazu?  
Aurrerantzean ez zaitzatela inola gizontzat har zu!  
Oi, esadazu, garbiro esan egia, arren bai arren!  
Egingo ote zenion so zuk esna egon balitz hemen?  
Eta hil duzu lo zegoela? Balentriaren bikaina!  
Ez al da hori narrasti baten, sugedorri baten lana?  
Sugedorri bat izan da noski; eztu mizto bikoitzagoz  
zuk duzun baino, oi suge gaizto!, zizta egin sugek inoiz.

### DEMETRIO

Grina sutsua xahutzen duzu okerreko aldarkez.  
Ez dut errurik nik Lisandroren odolaren isurtzeaz;  
ez da, gainera, hil ere noski, bederen nik dakidala.

### HERMIA

Otoizten zaitut, arren, orduan: esan ongi dagoela.

### DEMETRIO

Ahalko banu, trukean nik zer nuke hartuko saritzat?

### HERMIA

Ni ikustetik betiko salbu zaudelako agiri bat.  
Banoa, bada, zure bistatik, gorrotagarri zaidanez;  
ez gehiago hurbildu niri, Lisandro hil bada zein ez.

*Irten.*

### **DEMETRIO**

Ez dago zertan atzetik joan halako suminaldian;  
hementxe, beraz, egonaldia apur bat luza dezadan.  
Pena astuna da are eta astunago bilakatzen  
lo behe-joak penari dion zorra ez bada ordaintzen.  
Heintxo batean zor hori dut nik kitatuko ber-bertatik,  
haren eskaintza aintzat hartzeko egonaldi bat eginik.

*Etzan, eta lo.*

### **OBERON**

Zer egin duzu? Erabat duzu huts egin ene ordenan,  
eta isuri maite-zukua maitale-zintzo batengan.  
Zure errutik derrigor dator horrenbestez zintzoena  
maitale faltsu bilakatzea eta zintzo faltsu zena.

### **MATTIN**

Patuak, beraz, arautua du leiala den bakoitzeko  
milioi batek huts egitea, zin oro baitu hautsiko.

### **OBERON**

Zoaz basoan zehar haizea baino arinago hegaz,  
ea Helena Atenaskoa aurkitzen duzun inolaz;  
amodiozko mintxuriz dago, zurbil-zurbila musua,  
maite minezko hasperen sarriz barrena odolustua.  
Liluraren bat eragin eta hona duzu ekarriko;  
honako honen begiak ditut xarmatuko ordurako.

### **MATTIN**

Banoa, banoa; hara nola noan,  
ziztuan nola tartariarren arkutik gezia doan.

*Irten.*

### **OBERON**

Purpura-tindu honetako lore,  
jo ezazu Cupidoren azkonez  
honen begi-sagarrean txit barne.  
Honek bere maitea hor ikustez

hura dadin ager hain dirdai finez  
nola zeruko Venus oskarbiez.  
Esnatzean, ondoan bada, zaitetz  
hari gomenda sendabide galdez.

*Ostera sartu MATTIN.*

### **MATTIN**

Maitagarri saldoen buruzagi:  
hor duzu Helena eskuragarri,  
eta nahasi dudan jaun gaztea  
maitale-sari batez du galdea.  
Hauen lore-jokoa zer klase da?  
Ene, zein ergel den hilkor jendea!

### **OBERON**

Alde hortik. Jende horren zarataz  
Demetrio liteke esna, ausaz.

### **MATTIN**

Hala bik dute gorteatuko bat:  
jostagarri hutsa ikusleentzat.  
Ez zait niri ezer atseginago  
xelebrezko gauzen piperra baino.

*Sartu LISANDRO eta HELENA.*

### **LISANDRO**

Zergatik duzu pentsatzen burlaz nabilela gorteatzen?  
Destaina eta burla ez dira inoiz malkotan adierazten.  
Hitz ematean negar degizut, eta halako hitz zinak  
jaiotzez dira garbi agertzen, zintzo baitira eginak.  
Nola liteke ene hitzok zuk burla usteltzat hartzea,  
jator-jatorrik baitaramate egiaren seinalea?

### **HELENA**

Maltzurkerian aurrera zoaz gero eta gehiago.  
Egiak badu egia hiltzen, zeruz infernua dago!  
Bereak ditu Hermiak zinok. Huts egingo al diozu?  
Juramentuak oro pisatu, eta pisua huts duzu:  
hari eginek, niri eginek, bi balantzatan jarriak,  
berdin baitute hutsa pisatzen, ipuinak bezain arinak.

**LISANDRO**

Ez nengoen ni senean hari zin egiten niolarik.

**HELENA**

Eta ez zaude, ene aburuz, orain hari huts eginik.

**LISANDRO**

Demetriok du Hermia maite, eta ez zaitu maite zu.

**DEMETRIO**

Oi zu, Helena, jainkosa, ninfa, perfekziozko serafin!  
Zer nuke, maite, konparagarri zure begi laztanokin?  
Kristal finena uherregi da. Oi, nolako tentagarri  
diren ezpainok, musu-gerezi, sasoi jorira etorri!  
Zuri mamitu hain garbi hori, Tauro goiaren elurra,  
ekialdeko haizeoz aratz, bele da bihurtzen, horra,  
zuk altxatzean zeure eskua. Oi, musukatzen uztazu  
zuri garbiko printzesa hori, pozen giltza hor baituzu!

**HELENA**

Oi infernuzko pairamen latza! Nonbait zabiltzate denok  
elkar harturik neroren kontra, zuen jostagarri penok.  
Gizalegean kortesiatsu zeuez baldin bazinate,  
niri hain irain bidegaberik egin gabe zeundekete.  
Aski ez-eta ni higuintzea, bai baitakit hala dela,  
gogo-itunez lotu zarete, ni txantxagai nauzuela.  
Gizontasunez nor bazinate, gizon-itxuraren pare,  
ez zenukete dama xalo bat horren latz hartuko xede.  
Hor zabiltzate, promes eta zin, naizenetik ni goratzen,  
ziurki dakit bihotzez nola biok nauzuen higuintzen.  
Biok aurkari zarete, eta maite duzue Hermia;  
biok lehian aurkari, berdin, burlaz hartzeko Helena.  
Zer balentria, zer gizon baten egitandi txalogarri,  
dontzeila gaixo bati malkoak jaulkiaraztea larri  
zuen destainaz! Ez lioke, ez, berez jator denak hemen  
hain irain gaitzik birjina bati egingo, ez gaixo horren  
arima hala tormentatuko, zer eta jolastearren.

### LISANDRO

Gogorra zara zu, Demetrio; ez, bada, portatu hala, ezen Hermia maite duzula badakizu dakidala. Borondaterik onenaz dizut bihotza betean hemen maitasunean Hermiagana dudan partea ematen; Helenagana zuk duzunari ene alde egin uko, hura baitut nik maitatzen eta hil artean maitatuko.

### HELENA

Inoiz ez ziren burlatzaile bi hain alferrik mintzatuko.

### DEMETRIO

Gorde zeuretzat zeure Hermia, Lisandro, oso-osorik: inoiz maitatu badut nik, dago maitasun hori joanik. Ene bihotza hargana nuen arrotz-ostatuz eduki, eta orain da Helenagana atzera itzuli noski, han geratzeko.

### LISANDRO

Helena, arren, ez da egia inola.

### DEMETRIO

Zuk ez dakizun leialtasuna ez gaitsetsi, aizu, hala, bestela, guztiz zeure kaltean, garesti baietz ordaindu. Hor non datorren zure maitea; hor zaizu laztana heldu.

*Ostera sartu HERMIA.*

### HERMIA

Iluna gaua, kentzen diena beren ahala begiei, sentikortasun bizkorragoa eraginez belarriei; noiz eta ere baitu ilunak eragozten ikusmena, nabarmen dizu bertan ordaintzen, erne piztuz entzumena. Ez zaitu ene soak, Lisandro, inola ere aurkitu; belarriak nau, eskerrak hari, zure soinura gidatu. Zergatik, baina, nauzu ni hantxe gupida gaberik utzi?

### LISANDRO

Zergatik da bat han geratuko, bihotza badu ihesi?

## HERMIA

Zerk du indarra ene ondotik Lisandro aldarazteko?

## LISANDRO

Bere maiteak, hark du Lisandro bihurtu oin arineko;  
Helena finak, zeinak hobeki baitu gaua urreztatzen  
ezen ez zuek, goiko su-begi distiratsuok, duzuen.  
Zergatik zatoz ene atzetik? Ez al dizut utzi garbi  
dizudan higuin hau dela-eta joan naizela itzuri?

## HERMIA

Ez zara mintzo zeure baitatik; hori ez liteke izan.

## HELENA

Hara, hau ere elkartua da hauen arteko kidetzan!  
Ikusten dut, bai, hiru-hirurak lotu direla batean  
jolas ustel hau itxuratzeko, guztiz neronen kaltean.  
Hermia gaizto laidoz betea! Esker txarreneko neska!  
Azpijokoan elkartu zara, hauekin itundu, ezta?,  
destaina satsu honekin ni gaur amuan harrapatzeko.  
Bion arteko hainbeste kontu, isilka partekatuak,  
ahizpatasun estuko zinak, elkarrekiko orduak,  
zeinetan Aldi iheskorriari kargu hartzen baikenion  
gintuelako bereizarazten... Oro ahantziak ote?  
Ikasletako adiskidantza, gure haurtzaro xaloa?  
Nola, Hermia, halako jainko mundu-egile trebe bik,  
bion artean guk jostorratzez sortu genuen lore bat,  
lagin beretik bi-biok, eta kuxin berean jarririk,  
bi-biok txioz kantu berean, tonu berean bi-biok,  
bion eskuek, bion saihetsek, ahotsek, buruek, biek  
gorputz batenak ziruditela. Horra nola ginen hazi,  
gerezi bikoitz baten antzera, itxuraz erdibiturik,  
baina halere batasun garbiz erdibikuntza horretan;  
bi fruitu horra polit-politak zurtoin beretik eratu;  
bi gorputz, bada, ageri, baina guztira bihotz bakar bat;  
alegia, bi osagai, nola heraldikan armarriak,  
bat bakarrari dagozkiola, bilduak goiburu batez.  
Betidaniko maitasun hori erdibitzera al zatoz,  
gizonekin bat eginik hortxe lagun gaixoaren burlan?  
Ez duzu hori lagun-legea, ez du dontzeila batek duin.  
Gure sexuak, nik bezalaxe, egingo dizu haserre,  
nik neuk bakarrik nozitu arren irain latzaren zauria.

## HERMIA

Harri eta zur nauzu geratzen zure hitz suminduekin.  
Ni zuri burlaz ez nabilkizu; bai, antza denez, zu niri.

## HELENA

Ez al duzu zuk etorrarazi Lisandro, burlaka noski,  
hainbesteraino goraiatzera ene hazpegi tristeok?  
Bai eta zeure beste maitea —alegia, Demetrio,  
oraindik orain destaina biziz baininduen ostikatzen—  
behartu niri jainkosa, ninfa, kerubin, bakan, deitzera,  
bitxi, zerutar eta halako? Nolatan diotsa hori  
hain higuin zaion bati? Esazu, nolatan du gaur Lisandrok  
ukatzen zure maitasun hori, bihotz betekoa berez,  
eta dit niri, alazankoa, eskaintzen bere guztia,  
baldin ez bada zure akuiluz eta zure onespenez?  
Jakinik noski ez naizela ni zure pareko dohainez,  
hain maitasunak faboratua, halako zorioneko,  
baizik guztizko urrikgarri, ordain gabeko maitale?  
Behar zenuke erruki izan, erdeinatu beharrean.

## HERMIA

Ez dut ulertzen zer den horrekin esan nahi didazuna.

## HELENA

Ongi da, segi, segi horretan, so tristeak itxuratu;  
imintzioak egin burlaka nik bizkarra ematean;  
egin keinuak disimuluan; aurrera jolasarekin.  
Jostagarri hau, ondo bidean, kroniketan jasoko da.  
Bihotz, erruki, gizabiderik, halakorik bazenute,  
ez ninduzuen ni honelako trantze latzean jarriko.  
Adio, baina. Neronek ere badut errurik honetan;  
zor hori laster herioz edo huts-minez da kitatuko.

## LISANDRO

Zaude, Helena bihotz-ederra; uztazu desenkusetzen,  
Ene maitea, ene bititza, ene arima, Helena!

## HELENA

Bikaina, gero!

**HERMIA**

Laztana, otoi, ez hala burlatu neskaz.

**DEMETRIO**

Neskak erreguz lortzen ez badu, banekike behartzen nik.

**LISANDRO**

Zuk ez nauzu ni behartzenago berak erreguoz baino,  
bortxaz ez zara hura otoitzez den baino indartsuago.  
Bihotzez zaitut, Helena, maite, bizitzaz degizut nik zin,  
prest bainengoke hura galtzeko zure amoreagatik,  
gezurtatzeko esan dezana ez zaitudala nik maite.

**DEMETRIO**

Hainbat zaitut, oi, maiteago nik Lisandrok zaituen baino.

**LISANDRO**

Hori serio esan baduzu, zatoz, bada, frogatzera.

**DEMETRIO**

Goazen, ea!

**HERMIA**

Lisandro, nora nahi duzu zuk honekin?

**LISANDRO**

Utzi, muturbeltz!

**DEMETRIO**

Et-et-et, hara: egiten du askatzeko  
itxura noski, oldartu eta niri jarraitzeko planta,  
baina ez dator. —Hara zein zaren gizon kibil beldurbera!

**LISANDRO**

Hago geldi hor, kateme zatar gogaikarri hori, utzi!  
Edo astinduz zaitut gainetik kenduko, suge bat legez.

**HERMIA**

Zergatik zara honen zakartu? Nondik aldaketa hori?  
Maite laztana...

**LISANDRO**

Zure maitea! Kendu hortik, kastazikin!  
Kendu, botika gorrotagarri! Edabe higuin, utikan!

**HERMIA**

Txantxatan ari?

**HELENA**

Bai, alafede; eta zu ere bai noski.

**LISANDRO**

Demetrio, ni irmo naiz beti neure hitzean egongo.

**DEMETRIO**

Hobe banu nik zure hitz hori bermatua; izan ere,  
ahultzat daukat: ez naiz fidatzen, alegia, zure hitzaz.

**LISANDRO**

Zer behar nuke? Neska zauritu, jo, herioz akabatu?  
Izanagatik higuin, ez diot egingo halako minik.

**HERMIA**

Zer min zait, baina, handiagoa higuin izatea baino?  
Higuin, halere! Zer dela eta? Ai ene! Maite, zer da hau!  
Ausaz ez naiz ni Hermia? Eta ez zu menturaz Lisandro?  
Orain artean jotzen ninduzun bezain eder jarraitzen dut.  
Bart gauean txit ninduzun maite, eta gau honetan utzi...  
Ene, orduan, utzi al nauzu —jainko zerukoek guarda!—,  
zinez al nauzu, zin-zinez, utzi?

**LISANDRO**

Alafede, bai horixe,  
eta ez zaitut ikusi nahi, ez lehen eta ez gero.  
Utzi bertatik itxaropenak, ezbaiak eta zalantzak.  
Zaude, bai, ziur, egi-egia diotsut: ez da, ez, txantxa  
nik zaitudala zu higuin eta Helena dudala maite.

**HERMIA**

Ai ene! Oi zu, inkamikari! Harbeltzak jotako lore!  
Maitasun-lapur! Gauez al zara laztanagana etorri  
eta ebatsi haren baitatik bihotza?

## HELENA

Ederki, gero!

Ez al duzu zuk begirunerik, ez dontzeila-lotsa onik, ez manera ez hezibiderik? Nahi al duzu has dadin mihi gozo hau erantzun zakar amorratuak ematen? Utikan hortik! Itxuralari! Zu, bai, txotxongilo hori!

## HERMIA

Txotxongilo ni? Zer dela eta? Ai, hortik doa jokoa. Hara zertan den: bion artean du egin konparazio garaieraren aldetik. Bere luzera du goraiatu; eta halako itxurarekin, itxura lerdan horrekin, hain baita gora, bai alafede, Lisandro du liluratu. —Hain ote zaude zu hala, bada, haren estimuan gora ni naizelako halako apal, hain tamaina txikikoa? Zer naiz ni apal, esazu, maiatz-tantai margoztatu hori? Zer apal eta apalondo ni? Ez naiz noski hain apal, non ezin ditudan azazkalekin zure begiok iritsi.

## HELENA

Otoi, lagunok, hartuagatik noski zuek ni burlagai, jazar dakidan ez utzi honi. Ez dakit izaten zital: ez naiz trebea inola ere maltzurkeria-kontuan; dontzeila bati egoki zaion koldartasunean naiz fin: ez utzi, otoi, ni jotzen honi. Apika uste duzue, ni baino zerbait txikiagoa delako hau nerau baino, gai naizela ni kontrakatzeko.

## HERMIA

Txikiago! Hara berriz!

## HELENA

Oi, Hermia, zuk ez duzu zertan hain garratz izan enekin. Nik betidanik maitatu zaitut, sinestadazu, Hermia; gorde dizkizut isilpekoak, bidegaberik egin ez... behin ez bada: Demetrioren maitasunagatik baitut nik hura jarri jakitun hona itzuriko zinela zu. Hura atzetik etorri zaizu; maitez ni haren atzetik. Hark, ordea, nau ondotik jaurti, ninduela mehatxatzen ukaldiz eta ostikoz baietz ni jo, bai eta hil ere.

Orain, ostera, onean uzten badidazue joaten,  
Atenasera eramango dut atzera neure zoroa,  
utzirik zuei jarraitzeari. Laga, faborez, joaten.  
Horra zein naizen izatez simple eta lilura-erraza.

**HERMIA**

Alde egizu, bada. Nork dizu, esadazu, eragozten?

**HELENA**

Bihotz zoroak, atzean baitut baso honetan uzten nik.

**HERMIA**

Hara oraindik! Lisandroekin?

**HELENA**

Demetriorekin, barren.

**LISANDRO**

Ez ikaratu; honek ez dizu kalte egingo, Helena.

**DEMETRIO**

Inolakorik ez, jauna, nahiz zu beraren alde jarri.

**HELENA**

Oi, haserretzen denean, kasu, marisorgin zorrotza da.  
azerieme halakoa zen eskolara zebilela;  
eta, txikia izanagatik, erakusten daki hortzak.

**HERMIA**

«Txikia», berriz! Hau da, hau, «apal» eta «txiki» erauntsia!  
Honek horrela ni tratatzea jasan behar al duzue?  
Utzi, oi, niri, orduan.

**LISANDRO**

Zoaz hemendik, ipotx alaen!  
Txikien txiki, mami gabeko belar alferrez hazia!  
Aletxo, ezkur!

### DEMETRIO

Nabarmen samar hartzen dituzu lan handiegiak, hara, zure zerbitzu orori muzin degion damaren alde? Utzi bakean; ez zaitez mintza Helenaz, eta ez jarri beraren alde; ezen, bestela, noizbait baduzu saiatzen harenganako maitasunezko agerraldi txikiena, baietz garesti ordaindu hori.

### LISANDRO

Ez nauka jada heldurik: zarraizkit, bada, ausart bazara, gure zuzenak neurtzera, zurea ala enea, zein den gailen Helenarekiko.

### DEMETRIO

Zuri jarraitu! Bai zera! Noan zurekin, parean biok.

*Irten LISANDRO eta DEMETRIO.*

### HERMIA

Aizu, andrea, zalaparta hau zugatik duzu guztia. Ez, ez, ez zaitez hirira itzul.

### HELENA

Ez naiz fidatzen ni zukan.  
Zertako, bada, jarraitu zure konpainia zitalean?  
Eneak baino zure eskuak borrokan bizkorragoak:  
nik ditut, baina, lasterrerako luzeagoak zangoak.

*Irten.*

### HERMIA

Zurturik nago, eta ez dakit esaten are hiztxo bat.

*Irten.*

### OBERON

Zer zara, Mattin, axolagabe! Berriro egin duzu huts, ala dituzu halako saltsak berariaz antolatzen?

## MATTIN

Sinestadazu, itzaletako errege, hutsa izan da.  
Esan zenidan nik gizon hori ezagutuko nuela  
soinean zuen jantzi berezi atenastar erakotik.  
Hori horrela, ez da errurik ene ardura horretan,  
ezen dizkiot busti begiak atenastar peto bati.  
Horrenbestean, poza eman dit gauza hala irtetzeak:  
antolatu den txintxarri-festaz egin ditudan barreak!

## OBERON

Hor non doazen maitari biok leku bila ezpatentzat.  
Agudo, Mattin, gaua zeharo itzal dezala lainotzak;  
hor goiko ortzi izartsu hori estaliko duzu tanpez,  
Akeron bezain leize beltzeko behelaino itxi batez;  
eraman gero aurkari gaitzok hain bazter galduetara  
non ezingo den bata etorri bestearen galbidera.  
Lisandrorena eginez zeure ahotsa ezazu jaso,  
eta bertatik Demetriori irain ustelez eraso;  
arneguz hasi txandaka gero Demetrioren modura;  
urrundu biak elkarrengandik: horixe duzu ardura.  
Betor orduan, bi-bien sora, heriotza-orde, loa,  
zangoak berun, hegalak arin saguzar batenak nola.  
Hartu belar hau eta zukutu Lisandroren begietan,  
isuri horrek indar eder bat baitu bere ahaletan,  
kentzen baititu irudipenen ikuskeria ustelak,  
atzera berriz ohiko soaz biraraziz begibolak.  
Berriz esnatzen diren orduko, burlazko gaurko trantzeak  
amets halako izango dira, ikuskizun funsgabe bat;  
atzera dira Atenasera maitaleak itzuliko,  
eta hil arte iraungo duen elkarte batez lotuko.  
Kontu horrekin zabiltzalarik —zintzo egizu hainbeste—,  
erreginaren bila noa ni indiarthoaren eske;  
kenduko diot xarma begitik, hala dudala libratzen  
giza piztia horren bistatik, gauzak bakera daitezen.

## MATTIN

Maitagarrien jaun goren hori, agudo beharko ekin:  
gauaren dragoi bizkorak doaz hodeiak ebakiz arin,  
eta hara han ostertz-distira Auroraren iragarle;

hura heltzean, izpirituak, hara-hona ibilzale,  
tropelka dira kanposatura itzultzen. Kondenatuak,  
bidegurutze eta ibaien hobi tristean gorpuak,  
kokatuz doaz dagoeneko hango ohe hartsuetan;  
beldur egunak so egin dezan beren hoben larrietan,  
gogotsu dute beren burua argitik erbesteratzen,  
ea dienez bekozko beltzez gauak babeska ematen.

### **OBERON**

Gu, baina, beste kasta bateko izpirituak gaituzu.  
Maiz ibili naiz goiz ederraren maitasunean galaitzu;  
basozain baten gisa ditzaket zeharkatu zuhaiztiak,  
are haraino non, gorri biziz, sortaldeko atariak,  
izpi xarmantez argi zabalduz Neptunoren erresuman,  
urdin gazia urretan hori bihurtzen baitu uretan.  
Bizkor, ordea, lehia zaitetz, atzerapenik gabetik:  
egitekoa egin liteke egun-argitu aurretik.

*Irten.*

### **MATTIN**

Hara eta hona, hara eta hona,  
erabiliko ditut hara eta hona;  
landan, hirian, orok niri beldur ona;  
dabiltzala, iratxo, hara eta hona.

Hor dator bat.

*Ostera sartu LISANDRO.*

### **LISANDRO**

Non sartu zara, non, Demetrio burgoi hori? Esadazu.

### **MATTIN**

Hemen, oi doilor; prest-prest ezpata eskuan. Horratx. Eta zu?

### **LISANDRO**

Bertatik dizut zuzen ekingo.

### **MATTIN**

Zatoz enekin, orduan,

zelai batera.

*Irten LISANDRO, ahotsari segika.*

*Ostera sartu DEMETRIO.*

### DEMETRIO

Entzun, Lisandro! Eta esan non zabiltzan.

Itzurle zikin, koldar kikila, egin ote duzu ihes?

Esan! Sastrakan? Non gorde duzu zeure burua beldurrez?

### MATTIN

Urde koldarra, izarretara al zabiltza eupadaka,

basoei noski esanez ea nork nahi duen guduka,

eta ez zatoz? Zu, oilobusti, erdu; erdu, zu, umetxo!

Zigorraz dizut tas-tas emango. Desohore nuke, oso,

zuri ezpata ateratzea.

### DEMETRIO

Ea, ea, hor al zaude?

### MATTIN

Jarraitu ene ahotsari: hor baino, dema hemen hobe.

*Irten.*

*Ostera sartu LISANDRO.*

### LISANDRO

Aurretik doa, eta aldiro eupada eginez niri.

Hots egin duen lekura heldu, eta ez da han ageri.

Bilau horrek du oina nik baino askoz ere arinago:

ni hara joan ziztuan, eta jada airatua dago.

Hala nau utzi txit abaildua bide ilun zakarrear:

dezadan, bada, har hor atsedan.

*Etzan.*

—Zatoz, goiz eder, bet-betan!

Ezen zuk zeure argi goibela agertzen duzun orduko,

Demetrio dut nik aurkituko, eta mendeku hartuko.

*Lo geratzen da.*

*Ostera sartu MATTIN eta DEMETRIO.*

**MATTIN**

Ei, ei, ei! Koldar! Zertan zabilta; zergatik ez zatoz hona?

**DEMETRIO**

Zaude, bai, hortxe, gizon bazara; hain da gauza nabarmena lekurik leku ihes eginez zoazela zu nigandik, ez zarelarik inon egoten, ez ematen aurpegirik. Non zara orain?

**MATTIN**

Zatoz, bai, zatoz; hementxe naukazu, azti.

**DEMETRIO**

Tira, burlaka ari zatzaizkit. Baietz ordaindu garesti, halako batez egunez badut aurpegi hori ikusten. Zoaz, bai, zoaz, zeure bidean. Abaildurak nau behartzen luzez neurtzera ohatze hotz hau neronen gorputzarekin. Egun argia heltzen denean, ez niri iskintxo egin.

*Etzan, eta lo geratzen da.*

*Ostera sartu HELENA.*

**HELENA**

Oi gau larria, gau luze eta nekez beteriko hori, laburtu zaitetz! Goxagarriro egin argi sortaldetik, Atenasera nadin egunez itzuli ahal izan ni ene xumean higuinarriztat naukaten hauen ondotik. Hel bekit loa, tristuren latza sorgortzen jakiten baitu, eta nazala neure baitatik apur batean bahitu.

*Etzan, eta lo geratzen da.*

**MATTIN**

Hiru besterik ez? Beste bat betor. Sail bakoitzeko biz, bat falta da hor. Horra laugarrena, trenpu txarrean: zein gaizto Cupido, alajainetan, emeak hain jorik modu latzean.

*Ostera sartu HERMIA.*

### **HERMIA**

Halako larri, halako neke lazgarririk nik sekula!  
Ihintzak blaitu eta sasiek tarratatua goi-behe,  
herrestan ere ezin eginik beste urrats bat inola;  
zangoak dauzkat katigatuak, gogoz saiaturik ere.  
Egun argia etorri arte atsedendu nadin bertan.  
Goiko zeruok bezate zaindu Lisandro gaurko borrokan!

*Etzan, eta lo geratzen da.*

### **MATTIN**

Zoru honen gainean  
zaude lo sakonean.  
Behar dizut, maitari,  
begietan isuri  
sendagai on bat zuri.

*Lorea zukutuz LISANDROren begietara.*

Esnatzean, ostera  
gozatuko zara  
ikusirik  
hurbilik  
betiko zure dama.  
Esaera nola den hain ere gurea  
ematea dela giza legea nori berea,  
horren erakusgarri zure esnatzea:  
Peruk beuka bere Maria;  
deus ez dadila txarrera abia;  
jabearen eskura itzul bedi behorra, eta kito tirabira.

*Irten.*

*Lo geratzen dira.*

## IV.i

*Sartu TITANIA eta BARREN; ILARLORE, AMARAUN, SITS, ZIAPEALE eta beste maitagarri zerbitzariak; OBERON, ezkutuan.*

### **TITANIA**

Zatoz, pausa zaitetz hemen lorezko ohatzean,  
dizudalarik aurpegi gozoa ferekatzen,  
arrosa finak paratzen buru leun apainean;  
belarri luze ederrok, ene poz, musukatzen.

### **BARREN**

Non da Ilarlore?

### **ILARLORE**

Hemen prest.

### **BARREN**

Hazka egidazu buruan, Ilarlore. Non da mesie Amaraun?

### **AMARAUN**

Hemen prest.

### **BARREN**

Mesie Amaraun, mesie jator hori, hartu zeure armak eskuan,  
eta akaba iezadazu erlastar mokor-gorri bat kardu baten gainean;  
eta, mesie jatorra, ekarri ezti-zorroa. Neke handirik ere ez hartu  
horretan, mesie; eta, mesie jatorra, kontuz ezti-zorroa hauts ez dadin;  
atsekabe nuke ikusirik mela-mela eginda zatozela ezti-zorroarekin,  
siñore. Non da mesie Ziapeale?

### **ZIAPEALE**

Hemen prest.

### **BARREN**

Emadazu eskua, mesie Ziapeale. Arren, utzi albora zeremoniak,  
mesie jatorra.

**ZIAPEALE**

Zer duzu desira?

**BARREN**

Ezer ez, mesie jatorra, ez bada Amaraun jaun zaldunari hazka egiten laguntzea. Bizarginarenera behar dut, mesie; sinetsi ezineko iletsu daukat aurpegialdea; eta halako asto sentibera naiz, ilean azkura izanez gero ez baitut onik harik eta hazka egin arte.

**TITANIA**

Nahi al duzu musikatxo bat entzun, ene laztan hori?

**BARREN**

Ez dut batere belarri txarrik musikarako. Aurrera matrakak eta txintxarriak.

**TITANIA**

Edo esazu, zer zenukeen, ene gozo, gogoz jango.

**BARREN**

Mokokada bat belar ondu ez legoke gaizki. Olo lehorra gustura murtxikatuko nuke. Egia esateko, alpapa-azao baten irrika biziz nago: ederra, gozoa; parekorik ez du alpapak.

**TITANIA**

Maitagarri bat, guztiz ausarta, igor nezake zuretzat katagorriei intxaur berriak habietatik ostera.

**BARREN**

Nahiago nuke pare bat eskukada ilar lehor. Baina, otoi, esaiozu zeure jende horri bakean uzteko. Lotako galetasuna hasia naiz jada sumatzen.

**TITANIA**

Egin lo; nik zaitut neure besartean bilduko.  
—Maitagarriok, zoazte, segi bazterrik bazter.

*Irten Maitagarriak.*

Aihen-belarra hala du sasiama eztiak  
kiribilez biltzen; eta orobat huntz emeak  
uztaiz janzten urkiaren hatz azal-zakartsuak.  
Oi nola zaitudan maite! Zeinen zaitudan kuttun!

*Lo geratzen dira.*

*Sartu MATTIN.*

**OBERON** [*aurrera agertuz*]

Ongi jin, Mattin. Begira horko ikuskizuna.  
Errukitzen hasia naiz duen maitemin-grinaz.  
Ezen, arestian baitut basopean topatu  
opari-buket bat biltzen kirten doilor horrentzat,  
ahakar egin nik, eta muturka hasi gara,  
lokialde iletsuak apaindu baitizkio  
koroatxo lore fresko urrin-gozozko batez;  
eta hango ihintz fina, zeina pipiletan zen  
pausatu ñiriñir biziko perla biribil finez,  
orain zegoen loreño politen begietan,  
malkoak nola deitorez beren patu tristeaz.  
Diodalarik nik hartaz gogotik kargu hartu,  
eta hark otzan eskatu otoi ez gaitzitzeko,  
bertan diot egin ume ostuaren galdea;  
bai eta hark eman ere, agindurik ziezadala  
beraren maitagarriak neure salara ekar.  
Orain, neurekin dudanez mutila, diot jada  
kenduko begietatik tronpagarri doilorra.  
Erantzi, iratxo jator, kaskar-mozorro hori  
atenastar galai lander honi lepo gainetik;  
hala, gainerakoekin batera esnatzean,  
daitezen denak atzera Atenasera itzul,  
eta ez ditzaten gaurko gertakari bitxiak  
har amets-eldarnio bat baino gehiagotzat.  
Lehenik, baina, behar dut askatu erregina.  
Itzul zaitetz ostera ohi zinenera;  
Ikus ezazu berriz zenekusan bera.  
Kupido-loreari Diana-pipilak  
garaitzeko baditu xarmazko ahalak.  
Orain, Titania laztan, esna zakizkit, altxa.

**TITANIA**

Oberon neure! Ai ene ikuskarien latza!  
Nengoela nago asto batez maitemindurik.

**OBERON**

Hor datza zure maitea.

**TITANIA**

Nolatan halakorik?  
Zein higuin ene begiok aurpegi hori orain!

**OBERON**

Ixo une batez. —Mattin, erantzi buru hori.  
—Titania, musika jo; boskote hori bedi  
lo arruntaz baino egon kordegabeagoa.

**TITANIA**

Musika, ea, musika! Loa xarmatzekoa.

*Musika, emeki.*

**MATTIN**

Esnatzean, zeure begi ergelokin egin so.

**OBERON**

Jo musika! — Erregina, zatoz, heldu eskutik,  
eta kulunkatu lur hau non bostok dautzan lorik.  
Orain zu eta ni gara berriro adiskide;  
bihar gauerdian dugu —hotsandiz, alafede—  
dantza egingo Teseo dukearen etxean,  
oparotasun ederra opaz aurrerantzean.  
Maitari bikote leial biok dira han alai,  
Teseoz bat, ezkonduko: eztei hirukoitzaz jai!

**MATTIN**

Ene errege, zaude, eta adi  
goizeko larretxoria kantari.

## **OBERON**

Beraz, isil tristerik behar dugu  
gauaren itzalaren atzetik gu;  
arinago munduari guk birak  
ezen horko ilargi alderraiak.

## **TITANIA**

Erdu, ene jauna; hegan abian,  
kontatu gaurko gau harrigarrian  
nolatan hilkor artean nabarmen  
zoruan lo nauten aurkitu hemen.

*Irten.*

*Turuta-hotsa barruan.*

*Sartu TESEO, HIPOLITA, EGEO eta segizioa.*

## **TESEO**

Doala zuetako bat basozainaren bila!  
Xuxen baititugu bete uda-jaiekikoak,  
orain, eguna doanez aurpegia agertuz,  
ehiza-oren musika entzun beza maiteak.  
Sartaldeko ibarrean egiezue jare!  
Joateko, bada, ea, basozainaren bila!

*Irten Zerbitzari bat.*

—Goazen gu, erregina, mendi-tontorreraino,  
han baitugu adituko musika-zalaparta:  
txakur-zaunkekin batera oihartzunen asotsa.

## **HIPOLITA**

Han nintzen ni behiala Herkules eta Kadmok  
Kretako baso batean zutela ehizatzen  
espartar txakurrez hartza. Ez dut sekula entzun  
halako zaunka bipilik, ezen hango oihanak,  
hango zeru, iturriak, bazter guztiek hantxe  
oro txakur ziruditen. Egundo ez halako  
kalapita musikalik, hain burrunba gozorik.

## TESEO

Espartako arrazatik ditut neure txakurrak;  
ezpainsu, hondar-kolore; burutik darizkie  
belarri kulunkariak ihintzen garbitzaile;  
arkulo, papartsu, nola tesaliar zezanak;  
jazarle mantsoak, baina ahoz kanpai halako,  
jo eta jo. Txakur saldo entzungarriagorik  
ez da sekula xaxatu, adar-hotsezko txeraz,  
ez Kretan, ez Tesalian, ez Espartan. Zororrek  
entzun eta esan. Hara, baina! Zein ote ninfok?

## EGEO

Jauna, hortxe datzan hori ene alaba duzu;  
eta hau, berriz, Lisandro; eta hau Demetrio:  
hau, berriz, Helena, Nedar xaharraren alaba.  
Zer ote dabilta hemen guztiak elkarrekin?

## TESEO

Goiz jaikiko ziren noski zintzoki betetzeko  
maiatzeko jai-araua; eta guri ohore  
egin nahiz ospakizun hain gogoko honetan.  
Esan, ordea, Egeo: ez al da gaur eguna  
Hermiak erantzuteko zer hautu egin duen?

## EGEO

Hala da, jauna.

## TESEO

Ehiztariak bitzate iratzar adar-hotsez.

*Turutak eta tiroak barruan. LISANDRO, DEMETRIO, HELENA eta HERMIA  
esnatu eta zutitu.*

Egun on, lagunok. Joan ziren San Balentinak.  
Orain al dira basoko txoriak parekatzen?

## LISANDRO

Arren barka, ene jauna.

## TESEO

Otoi, denak zutitu.  
Badakit biok aurkari gogorak zaretela.  
Elkar-hartze atsegin hau nondik nora munduan,  
errezelotik baitago gorrotoa hain urrun  
non, ondoan lo, ez baita etsaigoaren beldur?

## LISANDRO

Jauna, erantzungo dizut harriduraz beterik,  
erdi lo, erdi beilari; ez dakit, zin degizut,  
garbiro esaten nola etorri naizen hona;  
Uste dut, halere... garbi nahi baitut mintzatu,  
ezen hala dut susmoa nik ezen... bai, hori da:  
Hermia lagun harturik, gura genuen biok  
alde egin Atenastik, leku batera nora  
ez zekigukeen jarrai atenastar legea.

## EGEO

Aski da, aski da! —Jauna, entzuna duzu aski.  
Legea dut galdegiten, legea ber-bertatik.  
—Itzuri zihoazkeen, itzuri, Demetrio,  
ihes horrekin urratuz bion eskubidea,  
zu emazte gabeturik eta niri kendurik  
zuri emandako hitza hura esposatzeko.

## DEMETRIO

Jauna, Helena ederrak dit horren berri eman,  
asmoa zutela hona basora etortzeko;  
eta hor natzaie sutan jarraika ni oldartu,  
Helena ene peskizan zetorrela atzetik.  
Baina, jauna, ez dakit nik zer ahalen indarrez  
—ahalen bat baita noski—, Hermiari nik nion  
maitasuna, elur gisa urtu, eta orain zait  
jostagarri zozo baten oroitzapena nola,  
alegia ni txikitan liluratua hartaz.  
Ene jaidura guztia, ene bihotz-indarra,  
ene begiaren xede eta laketgarria,  
Helena baizik ez duzu. Harekin nintzen, jauna,  
fedaturik, Hermiari so egin nion arte;  
baina dut, gaitz-joak nola, higuindu jaki hori.

Osaturik, nonbait, hona ni neurezko gustuan,  
eta gustu hori nuke kar biziz bete nahi,  
leialki behin betiko lotuko natzaiola.

### **TESEO**

Maitale laztanok, hona zorionez elkartu.  
Geroago diguzue guztia kontatuko.  
—Egeo, zure gogoa behar dut eragotzi,  
tenpluan behar baitute berehala gurekin  
bikote hauek betiko elkarrekin uztartu.  
Eta, goiza badoanez apurka nagusituz,  
ehizarako asmo hau bedi horretan geldi.  
Goazen Atenasera, bai, hiru bikoteok:  
jai bikain bat hotsandiro ospatuko dugu han.  
—Zatoz, Hipolita.

*Irten TESEO, HIPOLITA, EGEO eta segizioa.*

### **DEMETRIO**

Kontu hauek dirudite motel eta lausoak,  
nola mendi bihurtuak lainoen itxurako.

### **HERMIA**

Nik, berriz, dena dakusat begia erdizkatuz;  
nola gauza oro soan bikoizturik.

### **HELENA**

Nik berdin.  
Eta Demetrio dut nik aurkitu bitxi gisa,  
neure eta ez neurea.

### **DEMETRIO**

Ziur al zaude, baina,  
esna ote gauden orain? Irudipena baitut  
ametsetan lo gaudela. Ez al duzu hor entzun  
dukeak esan digula berari jarraitzeko?

### **HERMIA**

Bai, eta aitak ere bai.

**HELENA**

Bai Hipolitak ere.

**LISANDRO**

Esan baitigu berari jarraitzeko tenplura.

**DEMETRIO**

Orduan, esna gaude, bai. Goazkion atzetik,  
eta bidean kontatu geure amets horiek.

*Irten.*

**BARREN**

Ene txanda denean, deitu, eta erantzungo dut. Hurrena  
hauxe da: «Oi Piramo eder hori». [*Aharrausika*] Ai ei ai!  
Peru Irasagar! Txirul hauspo-konpontzailea! Moko eltzegilea!  
Gosekil! Jainkoak guarda! Hemendik hanka egin, eta  
honela uztea ni lotan! Ikuskari bitxi ere bitxia izan dut.  
Amets bat izan dut, gizonik argienak lanak lituzkeena  
esateko zer zen. Asto hutsa, noski, azaldu nahi badu hura.  
Amestu baitut nintzela... zera nuela... Barregarri huts  
geratuko da inor, hara, ausartzen bada esatera zer izan den  
ene ametsa. Ezein begik ez du ikusi, ezein esku ez da gai  
haztatzeko, ezein mihi irudikatzeko, ezein bihotz adierazteko,  
ene ametsa zer zen. Esan behar diot Peru Irasagarri idazteko  
balada bat amets horretaz. «Barrenen ametsa» deituko da,  
ez baitu barrenik; eta nik dut kantatuko obra baten amaieran,  
dukearen aurrean. Menturaz, grazia handiagoa izan dezan,  
Tisberen heriotzan kantatzea hobe.

*Irten.*

## IV.ii

*Sartu IRASAGAR, TXIRUL, MOKO eta GOSEKIL.*

### **IRASAGAR**

Egin al duzue mandatu Barrenen etxera? Itzuli al da dagoeneko?

### **GOSEKIL**

Haren aztarnarik ere ez han. Zalantzarik gabe, mudaturik dago.

### **TXIRUL**

Ez badator, gure obrarenak egin du. Bertan behera utzi behar, noski.

### **IRASAGAR**

Ezin jarraitu inola. Ez da Atenas guztian inor Piramorena egiteko gauza denik, hura besterik.

### **TXIRUL**

Hala da: hura da-eta bizkorrena Atenasko eskulangile guztien artean.

### **IRASAGAR**

Bai horixe. Eta plantarik onena duena ere bai. Guztiz enredugarria, gainera, ahotsaren eztiz.

### **TXIRUL**

«Eredugarri» esaten da. Enredugarri izatea, Jainkoak guarda, itsusi litzateke.

*Sartu XAMAR.*

### **XAMAR**

Lagunok, badator dukea tenplutik, eta beste bizpahiru jaun-andre gehiago ere ezkondu dira hortxe. Gure jostirudia ematerik izan bagenu, nolako mauka genuen.

### **TXIRUL**

Oi gure Barren bihotzekoa! Galdu ditu, horrenbestez, eguneko sei erreal bizi guztiko; eguneko sei erreal, bai horixe. Dukeak eguneko sei erreal ematen ez bazion Piramorena egiteagatik,

urka nazatela. Ondo mereziak, gainera; eguneko sei erreal  
Piramorengatik, edo batere ez.

*Sartu BARREN.*

**BARREN**

Non dira gure mutilak? Non dira bihotz azkarrok?

**IRASAGAR**

Barren! Oi egunaren jaukala! Oi hau une ezin ederragoa!

**BARREN**

Lagunok, mirariak dauzkat solastatzeko. Ez galdetu, baina,  
zer; zeren, kontatzen baditut, ez naiz atenastar egiazkoa.  
Den-dena kontatuko dizuet; gertatu bezala, halaxe.

**IRASAGAR**

Kontatu, otoi, Barren.

**BARREN**

Ez, bada; hitzik ere ez. Kontatuko dizuedan bakarra da dukeak  
jada egina duela jatorduarekikoa. Prest eduki jantziak, lokarri  
onak bizarrentzat, zinta berriak zapatentzat. Bil zaitezte bertatik  
jauregian; berrikusi bakoitzak bere antzezgaia; ezen, luzatu gabe  
labur esanda, onespina jaso du gure obrak. Edozein kasutan,  
Tisbek arropa garbia eraman dezala; eta lehoiarena egiten duenak  
ez ditzala moztu azazkalak, nabarmendu behar baitzaizkio  
lehoiaren erpetzat. Eta, antzezle maite bihotzekoak, ez jan  
tipularik ez baratxuririk, behar baitugu usain onez hats egin; hala,  
ez egin dudarik entzungo diegula esaten ona dela komedia.  
Asko da hitzik: martxa, ea!; martxa hemendik!

*Irten.*

*Sartu TESEO, HIPOLITA, FILOSTRATO, Zaldunak eta Zerbitzariak.*

**HIPOLITA**

Bitxia, ene Teseo, maitarion berria.

**TESEO**

Egia baino da noski bitxiago. Nik ez dut  
sinesten ele zaharrik, maitagarri-ipuunik.  
Maitari eta zoroek hain dituzte buruak  
borbortsu irudimenez, atzematen baitute  
arrazoi hotzak inola ulertzeko ez dena.  
Zoroak, maiteminduak eta poetak dira  
osorik irudimenez hirurak osatuak.  
Zoroak deabruz ditu ikusten bost infernu;  
maitariak, berriz, hura bezain zoroak joa,  
Helenaren pare jotzen Egiptoko musu bat.  
Poetaren begia da pausu gabe iraultzen  
zerutik lurrera eta handik berriz zerura.  
Irudimena doala gorputz trinko emanez  
gauza asmagaitzen formei, poeten lumak ditu  
haiek oro itxuratzen, airezko deus ez horri  
hala emanez munduan leku eta izena.  
Halako zeretan txit da irudimena bizi:  
hauteman orduko zerbait pozgarria inondik,  
otutzen zaio badela poz horren ekarlerik;  
halaber, gauean, dantzan dabiltzala izuak,  
zein erraz den hartz-itxura hartzea zuhamuxkak.

**HIPOLITA**

Gau-ibilerok, ordea, hain bizi kontatuak,  
eta guztien gogoak hala antzaldatzea,  
zerbait gehiago dira irudipen huts baino,  
eta bilakatzen dira hezur-mami sendoko,  
izanagatik halere miragarri bitxiak.

**TESEO**

Hortxe datoz maitariak, bozkarioz beterik.

*Sartu LISANDRO, DEMETRIO, HERMIA eta HELENA.*

Poza bedi, lagun onak, maitasun beti freskoz,  
zuen bihotzetan bizi!

**LISANDRO**

Zabiltzala gu baino,  
zu, jauna, pozago, txangoz, mahaiz eta ohatzez.

**TESEO**

Ea, zer maskara-festa, zer dantza izango da  
jostetan pasarazteko hiru ordu luzeok,  
afalondo honetatik ohera bitartean?  
Non da jai-ospakizunen kargu behar duena?  
Zer ekitaldi ditugu? Ez al da antzerkirik,  
tarte astun honen zama larria arintzeko?  
Datorrela Filostrato.

**FILOSTRATO**

Hemen, Teseo bikain.

**TESEO**

Zer denbora-pasa dugu gaurko gau honetako?  
Zer maskara, zer musika? Nola da gogatuko  
denbora aspertu hori, jostagarritz ez bada?

**FILOSTRATO**

Hona zenbat jokakizun ditugun prestatuak.  
Zerorrek egin hautua zein ikusi lehenik.

*Paper bat ematen dio eskura.*

**TESEO**

«Zentauroekin gudukan, atenastar eunuko  
batek harpaz lagundurik kantatzeko pieza».  
Ez halakorik, baitiot hori jada nik laztanari  
kontatu neure ahaide Herkulesen omenez...  
«Bakanteen mozkor-festa, non beroaren beroz  
laurdenkatuko baitute traziar kantaria».

Aspaldikoa da obra; jokatua, hain zuzen,  
Tebastik gudu-garaile itzuli nintzelarik...  
«Bederatzi musak doluz, deitoratzen dutela  
Jakintzaren heriotza, miserian hil berri».  
Hori satira bat duzu, zorrotz zirikatzaile,  
desegoki honelako eztei-jaiialdirako...  
«Piramo gaztea eta Tisbe haren maitea:  
jostirudi tragikoa, labur astuna guztiz».  
Jostagarri tragikoa! Laburrean astuna!  
Hau da: izotz eta elur bero mirarizkoak.  
Ba ote konponbiderik konpondu ezin horrek?

### **FILOSTRATO**

Antzezlan duzu, jauna, hamarren bat hitz luze:  
alegia, nik ikusi dudarik laburrena;  
hamar hitzoz, baina, jauna, sobera duzu luze,  
eta hargatik hain astun; ezen obra guztian  
ez da solas bat taxuzko, ez antzezle bat trebe.  
Eta tragikoa, izan, ene jauna, hala da,  
Piramok baitu egiten bere buruaz beste.  
Entseguan ikusirik, aitor dezadan garbi,  
negar-jario hasi naiz. Jostagarri hobe nik  
malkooz, algaraz inoiz jariatuez baino.

### **TESEO**

Nor eta zer dira hori antzeztuko dutenak?

### **FILOSTRATO**

Atenastar esku-zaildu, hiriko langileak,  
gaurdaino buruarekin lanik egin gabeak,  
hor zukutu dituztenak beren oroimen motzak,  
ezteioz direla eta, antzerki hau zertzeko.

### **TESEO**

Entzun nahi dut nik, bada.

### **FILOSTRATO**

Ez, oi, jaun bikain hori.  
Obra hau ez da zuretzat. Osorik dut entzuna,  
eta guztiz ere duzu hutsaren hurrengoa;

non eta neke huts hori ez zaizun jostagarri,  
hain baitute jardun estuasun larritan,  
zu ohoratu beharrez.

### TESEO

Entzun nahi dut, bada;  
ez baitu aitzakiarik ezein gizonen lanak,  
leialtasun xaloaren erakusgarri bada.  
Ea, ekar itzazue. Hartu lekua, damak.

*Irten FILOSTRATO.*

### HIPOLITA

Ez da egoki xumea gain-hartua arduraz,  
ez eta leialtasuna zerbitzuan galdua.

### TESEO

Lasai, ene laztan, ez da halakorik izango.

### HIPOLITA

Esan digu ez direla jator aritzeko gai.

### TESEO

Jatorrago gu, agertuz esker ona huts truke.  
Jostagarri biz baletzat hartzea guk kaleak.  
Leialtasun xumearen eskasa nor denak du,  
ez merezimendu, baizik asmo ontzat txalotzen.  
Nora ere joan naizen, jende printzipalenek  
ongi etorritzko agur txit landuz naute hartu:  
han ikusi ditut, zurbil, ikaratan, urduri,  
eten luzeak eginez esaldien erdian,  
prestaturiko solasak beldurrak iratoak,  
azkenerako muturik geratzen zirelarik,  
agurrik burutu gabe. Sinestadazu, laztan,  
isiltasun horretan dut nik agur bat sumatu,  
eta, dardara leialon lotsa-begirunean,  
hitz-jario bikain ozar bipil nabarmenaren  
mihi-dantzan bezain garbi aditu dut mezua.  
Niketetz, maitasuna eta xalotasun mutua  
gutxiz dira asko mintzo; hor ene aburua.

*Ostera sartu FILOSTRATO.*

### **FILOSTRATO**

Zure baimenaz, hasteko hitzaurrelaria prest.

### **TESEO**

Aurrera, bada.

*Turuta-hotsa.*

*Sartu IRASAGAR, Hitzaurrelariaren paperean.*

### **Hitzaurrelaria**

«Mingarri denik isuriz gero, berariaz ari gara.  
Argitu guran nola ez garen hor mingarri berariaz  
baizik. Xaloki erakusteko zerbait trebezia, hara,  
benetan gogoz gara ekinak asmo horretako grinaz.  
Jo ezazue ez gatozela etortze aldera baizik.  
Kontua dela, etorritz gero, ez geratzea guztiz motz,  
garbi baitago xedea. Zuen atsegin hutsarengatik  
ez gara heldu. Zuen begiak doluz betetzeko malkoz,  
prest eta gertu hor antzezleak, eta haien agerpenaz  
gauza zertan den zehaztuko da behar den xehetasunaz».

### **TESEO**

Tokitan honek puntuak.

### **LISANDRO**

Hor dio jare egin hitzaurreari, moxal hezigabe bat bezala,  
ez baitaki non gelditu. Horra ikaskizun on bat, jauna: ez da  
aski hitz egitea: xuxen behar da hitz egin.

### **HIPOLITA**

Bai jauna: haur bat txirula jotzen bezala ekin dio bere horri:  
soinua bai, baina antolatu gabea.

### **TESEO**

Horren solasak baitzirudien kate korapilatu bat: ezer ez eskas,  
baina oro nahas-mahas. Nor dator hurrena?

*Sartu Piramo eta Tisbe, Horma, Ilargidizdiz eta Lehoi.*

## Hitzaurrelaria

«Jaun-andre onak, zer helduko den ari bazarete galdez, jarraitu hala, egiak oro argituko duen arte.  
Hona Piramo, baldin nor dugun inor bada jakin-minez.  
Dama eder hau, Tisbe da baiki, duda egin bazenute.  
Gisuzko jantziz, gizon hau dugu, ene andre eta jaunak,  
harako Horma, Horma doilorra, maitarion bereizlea;  
eta, Hormaren zirrikitutik, gaixoek nolako lanak  
xuxurlatzeko. Ez pentsa, bada, oker denik antzezlea.  
Esku-argiaz, txakurraz eta elorri-abarraz, honek  
antzeztuko du Ilargidizdiz: bada, jakizue ezen  
ilargipean zutela zita maitari samintsu hauek,  
Ninok hilobi tristea duen lekuan, hain zuzen.  
Lehoi deritzon basapiztia ikaragarri honek du  
Tisbe zintzoa —gauean bera heldua lehenik hara—  
izu-ikaraz uxatu handik, sustotik baita airatu.  
Ihesi itsuz, gainjantzia du utzi erortzen lurrera,  
eta hura du mutur odoltsuz Lehoi doilorrak zikindu.  
Laster hantxe zen gure Piramo, gazte lirain amultsua.  
Tisbe finaren gainjantzia du aurkitzen tarraturik;  
hantxe hartzen du sastakai latza, sastakai sarraskitsua;  
braubarrentzen du borbor biziko bere bular odoltsuan.  
Hor dator Tisbe, masustapean gordea baitzen haren zain,  
gorputik daga atera, eta han da hil. Gainerakoaz,  
Ilargidizdiz, Horma, Lehoi zein maitari-bikote biak  
bitez hementxe solasez luza, eginik zuekikoak».

*Irten Hitzaurrelaria, Tisbe, Lehoi eta Ilargidizdiz.*

## TESEO

Mintzatzekoa ote da lehoia?

## DEMETRIO

Ez batere harritu, jauna: lehoi bat zergatik ez, asto asko  
mintzaten da eta.

## Horma

«Antzestirudi beronetan da guztiz garbi agertuko  
nola nik —Moko ene grazia— dudan Horma antzeztuko.  
Delako hormak, nahi dut zuek sinestatzea erabat,

zulatua du arrail, artesi edota zirrikitu bat,  
nondik baitira Piramo eta Tisbe maitari zintzoak  
batzen eginez isil-gordean beren xurxurla goxoak.  
Honako gisu, ore, harriok dizuete erakusten  
nerau naizela delako horma:egia horra nabarmen.  
Hona delako artesi hori, hemen ezker eta eskuin,  
nondik ikaraz diren xuxurlaz mintzatzen bi maitari duin».

### **TESEO**

Mintza ote liteke harri-ore-gisua hori baino egokiago inola?

### **DEMETRIO**

Egundo hizketan entzun dudan trenkadarik argiena, bai jauna.

*Sartu Piramo.*

### **TESEO**

Hormaren ondora dator Piramo. Ixo!

### **Piramo**

«Oi gau so-goibel! Oi gau itxura guztiz kolore beltzeko!  
Oi gau, zeina hor baitzara beti, egun argi ez badugu!  
Oi gau, oi gau, oi tamalgarrizko hondamen zoritxarreko,  
beldur naiz ez den ene Tisberen promesa hutsean galdu!  
—Hi, bada, horma bihotzeko, oi, hi, horma amultsu hori,  
haren aitaren lurraren eta ene artean jaso,  
hi, horma laztan, oi bihotzeko horma amultsu, gaur niri  
erakutsi, oi, heure arraila, han zuloratzeko soa!

*Hormak hatzak jasotzen ditu, v bat eginez.*

Eskerrik asko, horma adeitsu. Jupiter dela hirekin!  
—Zer ikusten dut, ordea? Ene, ez dut Tisberik ikusten.  
—Oi horma gaizto, higandik zehar zerua ikusi ezin!  
Gogor ditiat hire harriok makurtzat madarikatzen!».

### **TESEO**

Horma, nik uste, sentikor izanik, hitzoi behar lieke ordaina eman.

**Piramo**

Ez, bada, jauna, ez luke erantzun behar. «Madarikatzen» Tisberen oina duzu. Puntuan sartzekoa da hura, eta nik behar dut horma-zulotik begiztatu. Ikusiko duzu: esan dizudan bezal-bezalaxe gertatuko da. Hor dator.

*Sartu Tisbe.*

**Tisbe**

«Oi horma, hain maiz entzunak dituk ene deitore larriok; banantzen gaituk elkarrengandik Piramo fina eta ni! Gerezi-ezpain hauek ditiztek maiz musukatu harriok, ore-gisuaz eta harrioz osatua egonik hi».

**Piramo**

«Hor dut ikusten ahots bat. Noan, bada, orain artesira, handik dezadan ene Tisberen aurpegi gozoa entzun. Tisbe!».

**Tisbe**

«Maite laztana! Oi ene, maite, noski zu zerori zara?».

**Piramo**

«Bai, noski, hara: zure maitari dohatsua zeren nauzun, Limandro nola, hala ni zintzo eta leial naizateke».

**Tisbe**

«Eta Helena nola, hala ni, Patuek eraman arte».

**Piramo**

«Zefalo bere Prokris harekin, ni bezain leiala nekez».

**Tisbe**

«Zefalo bere Prokrisi bezain natzaizu lotua maitez».

**Piramo**

«Oi, emadazu, eman musu bat horma txar honen zulotik!».

**Tisbe**

«Horma-zuloa dut musukatzen, eta ez zure ezpainik».

**Piramo**

«Elkartu ote gintezke, maite, Nino zenaren hobian?».

**Tisbe**

«Hil edo bizi, bizi edo hil, haraxe noa abian».

*Irten Piramo eta Tisbe.*

**Horma**

Honela dut nik, Hormak, jokatu neure antzezgai zatia;  
amaitu baitut, enekin doa Horma horren zer guztia».

*Irten.*

**TESEO**

Horra behera etorri bi auzoen arteko harresia.

**DEMETRIO**

Ezinbestean, jauna, hormak halako jaidura izanik ohartarazi  
gabe entzuteko.

**HIPOLITA**

Egundo ez bezalako txorakeria da hau, gero.

**TESEO**

Halako onenak itzal batzuk besterik ez dira; txarrenak, berriz,  
ez dira hain ere txar, irudimenak baditu oneratzen.

**HIPOLITA**

Zure irudimena behar du izan, orduan, ezen ez berena.

**TESEO**

Ez baditugu irudikatzen txarrago berek beren burua duten baino,  
bikaintzat jo litezke noski. Hona non datozen bi piztia noble:  
gizon bat eta lehoi bat.

*Sartu Lehoi eta Ilargidizdiz.*

## **Lehoi**

«Oi zuek, damok, bihotz samurrez baitzarete ikaratzen zoruan narras dabilen sagu, itsusi arren, xaxtarraz, orain menturaz jar zintezkete dardaraz lekutik jauzten lehoi zakarra amorru biziz hasten delarik orroaz. Jakizue ni, Xamar zurgina, gisa honetan naizela lehoi anker bat, ez bestelako lehoi-dama edo hala: ezen banentor lehoi gisara hona borroka-oldarrez, ez litzateke ene bizitza noski seguru irautez».

## **TESEO**

Jatorra, oso, piztia; kontzientzia onekoa.

## **DEMETRIO**

Beste piztiarik ez dut, jauna, honen parekorik ikusi inoiz.

## **LISANDRO**

Azeri hutsa dugu lehoi hau adorez.

## **TESEO**

Bai eta antzar hutsa ere zuhurtziaz.

## **DEMETRIO**

Ez, bada, jauna; adorez ez baita gai zuhurtziari gailentzeko, eta azeria, berriz, gailentzen zaio antzarrari.

## **TESEO**

Zuhurtzia, ziur naiz, ez zaio gailenduko hor adoreari; antzarra ez baitzaio gailentzen azeriari. Aski da horrenbestez: zuhurtzia bekio lagun, eta entzun dezagun ilargia.

## **Ilargidizdiz**

«Esku-argiak ilargia du bere adarrez antzezten».

## **DEMETRIO**

Honek behar lituzke buruan eraman adarrak.

## **TESEO**

Ez da bera hilgora, eta ikusgaitz ditu adarrak zirkuluaren barnean.

**Ilargidizdiz**

«Esku-argiak ilargia du bere adarrez antzezen;  
nerau naiz, bada, gaur ilargiko gizona itxura guztiz».

**TESEO**

Hauxe duzu hutsik handiena guztietan: gizonak behar luke  
esku-argian sartua. Nola liteke bestela ilargiko gizona?

**DEMETRIO**

Kandela-suarengatik ez da ausartzen hor sartzen; izan ere, hara,  
gori-gori dago.

**HIPOLITA**

Nekatu naiz ilargi horretaz. Oxala aldatuko balitz!

**TESEO**

Antza, zuhurtziatzko hain argi gutxiz, ilbeherara bidean da;  
anartean, ordea, adeitasunez, zentzu onari jaramon, hemen  
behar dugu jarraitu oraindik.

**LISANDRO**

Aurrera, ilargi.

**Ilargidizdiz**

«Esateko dudan guztia da zuei adieraztea esku-argia ilargia dela;  
ni, ilargiko gizona; elorri-abar hau, ene elorri-abarra; eta txakur hau,  
ene txakurra».

**DEMETRIO**

Halere, esku-argiaren barruan behar lukete horiek guztiok;  
ilargian baitaude denak ere. Ixo, baina! Hor dator Tisbe.

*Sartu Tisbe.*

**Tisbe**

«Hemen du Nino zenak hobia. Non ote ene maitea?».

**Lehoi**

[*Orroaz*] «Orrr!».

*Tisbe han doa ihesi, eta gainjantzia erortzen zaio.*

**DEMETRIO**

Ederra orroa, Lehoi.

**TESEO**

Ederra lasterraldia, Tisbe.

**HIPOLITA**

Ederra distira, Ilargi. Jasekoa, benetan, ilargiaren distira.

*Lehoik Tisberen gainjantzia muturkatu.*

**TESEO**

Ederra astindua, Lehoi.

*Sartu Piramo.*

**DEMETRIO**

Eta hara Piramo agertu.

*Irten Lehoi.*

**LISANDRO**

Eta horra lehoia aienatu.

**Piramo**

«Ilargi laztan, eskerrak hiri eguzki-izpiongatik;  
eskerrak hiri, Ilargi, dirdai biziz haizelako ari;  
hire errainu finen urrezko distira ñirñirkaritik  
esperantza dut begiztatzeko ene Tisbe leial hori.

Hara, baina, oi zer atsekabe!

Errepara, zaldun dohakabe,

nolako ikuskari ikaragarria!

Ene begi, ikusten al duk hor,

sineste hutsa hain baita gogor?

Oi ene panpox hori!; oi maitagarria!

Hor zure gainjantzi bikaina,

ai ene, odol gorriz zikina!

Zatozkidate zuek, Furia ankerrak!

Oi Patuok, zatozte, zatozte,  
moztu hari, bilbe eta beste;  
izuz, zartaz, akabuz astindu bazterrak!».

### TESEO

Kexu sutsu horrek, eta lagun maite baten heriotzak, hortxe-hortxe  
liezaiokete bati tristura eragin.

### HIPOLITA

Bada, bihotz honen tamal, pena ematen dit niri.

### Piramo

«Oi, zergatik dun sortu, Natura, lehoi kasta galdu hori?  
Oraintxe baitit lehoi doilorrak loregabetu laztana,  
zeina baita —ez, ez— zeina baitzen dama guztietan jori,  
bizi, maitatzen, alai ibiltzen paregabeko izana.  
Erdi, negar-malkoak, zeharo hondatu;  
jalgi hortik, ezpata, eta zarratatu  
Piramoren titia; ezker titi hori  
non bihotza baitabil dardaraz jauzkari.

*Sastakatu bere burua.*

Hona ni hil, honela, honela, honela.  
Hilik nago, hara, hilik;  
eneak jada eginik:  
badoakit arima zerura.  
Oi ene mihi hori, ez egin hor argi;  
Oi ortziko ilargi, zoazkit itzuri.

*Irten Ilargidizdiz.*

Hil, bada, hil, hil, hil, hil».

*Hil.*

### DEMETRIO

«Bada» ez baizik «bata» horra irten horri; bateko ederra.

**LISANDRO**

Batekoa baino gutxiago, aizu; hil denez gero, hutsa duzu noski.

**TESEO**

Kirurgia apur baten laguntzarekin, osa liteke oraindik atzera asto bat izateraino.

**HIPOLITA**

Nola liteke Ilargidizdizek alde egitea Tisbek hona itzulirik bere maitalea aurkitu baino lehen?

**TESEO**

Izar-argitan aurkituko du. Hor non datorren.

*Ostera sartu Tisbe.*

Honen kexu biziarekin amaitzen da obra.

**HIPOLITA**

Ez ahal du deitore luzerik egingo halako Piramo batentzat. Espero dut labur aritzea.

**DEMETRIO**

Tanto batek desorekatuko du balantza, ea Piramo den, ala Tisbe, hoberena: bata, gizontzat (Jainkoa balia!); bestea, emakumetzat (Jainkoak bedeinka)!

**LISANDRO**

Aurkitu du jada gizona bere begi gozo horiekin.

**DEMETRIO**

Eta hor zer dioskun, hara:

## **Tisbe**

«Lotañ, ene laztan gozo?  
Ene! Hila, ene uso?  
Oi, hortik, Piramo, jaiki!  
Hitz egizu. Guztiz mutu?  
Hila, hila? Hobiratu  
beharko ditugu aurki  
begi gozook. Lirio-ezpainok,  
sudur gerezi fin hori,  
sanjose-lore horizko masailok,  
joanak dira, joanak:  
egin dolu, maitaleak:  
porruen berdez zituen begiok.  
Oi Hiru Ahizpak, hona,  
erdu, zatozte nigana,  
esku esne halako zurbilokin:  
odol-blaitu itzazue,  
zorrotz eten baituzue  
haren zeta-haria aitzurrekin.  
Mihi, hitzik ez jadanik.  
Hator, ezpata fin, hortik,  
sastadaz dadin bular hau jario.

*Sastakatu bere burua.*

Bakea dela zuekin;  
horra Tisberenak egin.  
Adio, beraz, adio, adio».

## **TESEO**

Ilargidizdiz eta Lehoi geratzen dira hilak ehorzteko.

## **DEMETRIO**

Bai eta Horma ere.

*Zutitu BARREN.*

## **BARREN**

Ez, bada, hara: erori zen horma bion aitak banantzen zituena.  
Nahi al duzue hitzatzea ikusi, edota bergamaska-dantza bat  
entzun gure bi kidek zertua?

## **TESEO**

Hitzatzerik ez, otoi; zuen obrak ez baitu behar desenkusarik.  
Ez da zertan desenkusatu, zeren, antzezleak hilik daudenean  
guztiak, ez da errudunik bilatu behar. Hara, zer hau idatzi  
duenak Piramorena jokatu balu eta bere burua urkatu Tisberen  
galtzaritik, tragedia ederra zatekeen hau. Eta, izan, hala da zinez,  
eta poliki asko antzeztua. Tira, ekin bergamaska horri.  
Utikan hitzatzea.

### *Dantza.*

Gauerdiak burdin mihiz hamabiak ditu jo.  
Maitari finok, ohera: gau-xarmen tenore da.  
Beldur naiz datorren goiza lo luzez joango den,  
hainbeste nola beilari baitugu eman gaua.  
Antzerki nabarmen honek ederki du arindu  
gauaren pauso astuna. Segi, bada, ohera.  
Hamabostaldi oso bat iraun beza ezteiak,  
ospakizunoz ekarriz bozkario berriak.

### *Irten.*

*Sartu Mattin.*

## **MATTIN**

Horra hor lehoi gosea orroaz,  
otsoa uluka ilargiari;  
goldari gogorra, berriz, zurrungaz,  
neke astunen akidura-sari.  
Txingar iraungiak horra dirdaiez,  
ontzak oihu ozen dagielarik,  
minez datzan gaixoari hainbestez  
hil-beztidura oroitarazirik.  
Horra heldu gau-tenore hori non,  
hobiak, ahoa zabalduz, diren  
zein bere mamuaz husten edonon,

hilarritz hilarri hortxe limurtzen.  
Eta maitagarri-elfook, zeinak,  
Hekateren talde hirukoitzaz bat,  
ez garen eguzkirako eginak,  
ilun zale geurez nola amets bat,  
hona pozez saltoka. Sagurik ez:  
libre da etxe dontsu hau nahaslez.  
Erratza eskuan naute igorri,  
hautsak astintzeko atepe horri.

*Sartu OBERON eta TITANIA segizioarekin.*

### **OBERON**

Goxoki eman etxean argia  
su bizigalduaren inguruan.  
Elfo, maitagarri-jende guztia,  
arin egin brinko txori moduan.  
Eta lelo hau kantatu enekin,  
soinuaz dantzatzuz arin bai arin.

### **TITANIA**

Errepika guztiok buruz kanta;  
hitz bakoitzari bere txio-nota.  
Leku hau, elkarri eskutik helduz,  
dugu bedeinkatuko xarma-kantuz.

*Kanta eta dantza.*

### **OBERON**

Denok, bada, egun argira arte,  
ekin, maitagarriok, atez ate.  
Goazen ezkon-ohe onenera,  
mila bedeinkazio banatzera;  
handik hala sortuko den fruitua  
izan bedi beti zoriontsua;  
eta bikoteak, hirurak ere  
bihotz zintzoz bitez izan maitale.  
Naturak haiengan egin akatsak  
ez bitza beretu haien emaitzak;  
ez orin, ez orbain, ez erbi-ezpain,

ez parte txarreko marka —nola hain  
sarri baitu eragiten jaiotzak—  
ez beza nozi gurasoon haurrak.  
Zelai-ihintz honek sagaraturik,  
maitagarri oro, segi bertatik  
dohatsu egitera jauregi hau,  
bake ederrean egun eta gau;  
hala, haren jabe bedeinkatua  
lasai biziko da, segurtatua.  
Zoazte, ekin, ez utzi geroko;  
itzuli hona egunsentirako.

*Irten OBERON, TITANIA eta segizioa.*

### **MATTIN**

Itzalok gaur inor badugu mindu,  
egin kontu —hala zama arindu—  
kuluxkatxo bat egin duzuela  
ikuskariok antzezten zirela.  
Eta egitasmo erkin, maskal hau  
—amets huts bat fruitu, garauak garau—,  
jaun-andreok, ez gogorki astindu;  
onbera izan, ondu gaitezen gu.  
Sinetsi, iratxo zintzo naizenez:  
zorte badugu —ezen meritu ez—  
suge-txistuei egiteko itzur,  
gerora gara hobetuko ziur.  
Bestela, iratxo gezurti jo ni.  
Gau on, bada, honatu den orori.  
Txaloz luzatu eskuok, lagunak:  
ematen daki Mattinek ordainak.